

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN PLANA
EUROPAR BATASUNAK
KOFINANTZATUTAKO PROIEKTUETAN
OSOTASUNA, KUDEAKETA-ARRISKUEN
PREBENTZIOA ETA IRUZURRAREN
KONTRAKO NEURRIAK SUSTATZEKO
(2025eko urrian eguneratua)





AURKIBIDEA

1	Planaren aurrekariak eta xedea (eg. urr. 2025)	4
2	Aplikazio-eremua	6
2.a	Aplikazio-eremu objektiboa:.....	6
2.b	Aplikazio-eremu subjektiboa (eg. api. 2024 eta urr. 2025):	6
3	Araudi aplikagarria (eg. aza. 2024 eta urr. 2025)	8
4	Glosarioa (eg. 2023 eta urr. 2025)	15
5	Kudeaketa-printzipioak.....	19
6	Bizkaiko Foru Aldundiaren antolaketa eta gobernantza (eg. aza. 2024)	20
7	Diagnostikoa: indarguneak eta ahulguneak (eg. aza. 2024 eta urr. 2025) ..	25
8	Interes-gatazka (eg. 2023, aza. 2024 eta urr. 2025)	31
9	EBren finantza-interesen arriskuak ebaluatzeko prozedura, kofinantzatutako azpiproiektuaren sail arduradun bakoitzak ezarri beharrekoa (eg. 2023 eta urr. 2025)	35
10	Iruzuraren kontrako zikloko neurriak: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena (eg. 2023, aza. 2024 eta urr. 2025)	39
10.a	PREBENTZIORAKO tresnak eta prozedurak.....	39
10.b	DETEKZIORAKO tresnak eta prozedurak.....	47
10.c	ZUZENTZEKO ETA JAZARTZEKO tresnak eta prozedurak.....	51
11	Planaren publikotasuna	54
12	Planaren jarraipena eta ebaluazioa (eg. 2023 eta aza. 2024)	55
13	I. eranskina: Iruzuraren kontrako adierazpen instituzionala	56





14	II. eranskina: Interes-gatazkaren, iruzurraren eta ustelkeriaren prebentzioaren testa (eg. urr. 2025)	58
15	III. eranskina: Ahalezko interes-gatazka tratatzeko prozedura (eg. aza. 2024 eta urr. 2025).....	60
16	IV. eranskina: Ereduak: interes-gatazkarik ezaren adierazpenak (eg. 2023 eta urr. 2025)	72
16.a	IV.a – IGEAren eredua: HFP/1030/2021 Agindua.....	72
16.b	IV.b – IGEAren eredua: lizitazio-/dirulaguntza-prozeduretako lizitatzaille/eskatzaileentzat	74
16.c	IV.c – Aurretiko IGEAren eredua: HFP/55/2023 Agindua.....	75
16.d	IV.d – Interes-gatazkarik ez dagoela berresteko eredua	77
16.e	IV.e – IGEAren eredua: kontroleko langileentzat (fiskalizazioa, auditoria)	78
17	V. eranskina: Salaketen barne-kanala kudeatu eta ikertzeko prozedura (eg. 2023 eta urr. 2025)	80
18	VI. eranskina: Bandera gorriak iruzurraren kontrako borrokan (eg. 2023 eta urr. 2025)	84
19	VII. eranskina: Prozedura-gida interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizaturako (MINERVA) (eg. urr. 2025)	92
1.	Zer da interes-gatazkaren (IG) arriskuaren analisi sistematikoa?	94
2.	Zein da helburua?.....	94
3.	Non arautzen da?	94
4.	Aplikazio-eremua	95
5.	Prozedurak ezartzen dituen figurak.....	96
6.	MINERVAKO prozedura	97





19.a	I. ERANSKINA MINERVAREN ANALISI SISTEMATIKORAKO PROZEDURA-GIDA: Interes-gatazkarik ezaren adierazpenaren gutxieneko edukia. IGEAren eredua: HFP/55/2023 (PREBENTZIO-PLANEAN SARTUTA DAGO IV.c eranskinean) 103
19.b	II. ERANSKINA MINERVAREN ANALISI SISTEMATIKORAKO PROZEDURA-GIDA: Eredua: interes-gatazkarik ez dagoela berrestekoa (PREBENTZIO-PLANEAN SARTUTA DAGO IV.d eranskinean)..... 103
19.c	III. ERANSKINA MINERVAREN ANALISI SISTEMATIKORAKO PROZEDURA-GIDA: Zer arau aplikatu behar den hautatzeko zer eskabideri egin behar zaion arrisku-analisia lehia masiboko dirulaguntzak emateko prozeduretan 103
19.d	IV. ERANSKINA MINERVAREN ANALISI SISTEMATIKORAKO PROZEDURA-GIDA: CoFFEE eta MINERVA erabiltzeko jarraibideak 104
20	VIII. eranskina: Interes-gatazkaren ex-post analisia egiteko gida..... 125
20.a	I. eranskina: CoFFEE/MINERVAn interes-gatazkaren analisia egiteko egin beharreko urratsak..... 128
20.b	II. eranskina: CoFFEE/MINERVAn eragiketaren arduradunak egin beharreko urratsak 129
20.c	III. eranskina: Analisiaren emaitzak: bandera beltz bat edo gehiago aurkitu da... 135
20.d	IV. eranskina: Txosten eredua 136
21	IX. eranskina: JARRAIPEN-TAULA (eg. urr. 2025) 137





1 Planaren aurrekariak eta xedea (eg. urr. 2025)

Bizkaiko Lurralde Historikoko gobernua Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio; Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde nagusietako bat da bera. Ahaldun nagusia da buru, eta zenbait eginkizun betetzen ditu, hala nola zerga-bilketa, hirigintza, errepideak eta herri-lanak, ingurumena, kultura-ondarea edo gizarte-ongizatea.

Bizkaia proiektu batzuk garatzen ari da Europako funtsen laguntzaz, tradiziozko premietara bideratuta, adibidez, enplegua sustatzera edo Europar Batasuneko eskualdeak orekaz garatzera. Ildo horretan, nabarmendu behar da Bizkaiko Foru Aldundia bitarteko organismotzat hartu dela EGEF programa operatiboan.

Era berean, COVID-19 pandemiaren ondoriozko krisiari erantzuteko, Bizkaia proiektu bat baino gehiago gauzatu du Europako funtsen laguntzaz; proiektu horien bidez lagundu du gizartea eraldatzen, ekoizpen-sarea modernizatzen, «deskarbonizazioa» eta ingurumenarekiko errespetua bultzatzen, digitalizazioa sustatzen, eta ikerketara eta prestakuntzara bideratutako egiturak eta baliabideak hobetzen. Azken batean, lortu du gizarteak pandemia eta antzeko arazoak gainditzeko gaitasun handiagoa izatea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan ezarritako esparruarekin bat etorritik. Izan ere, erregelamendu horren bidez, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri da (hemendik aurrera, SEM).

SEMa ezartzen duen 2021/241 (EB) Erregelamenduak, finantza-kudeaketa onaren printzipioarekin bat etorritik, estatu kideak behartzen ditu EBren finantza-interesak babesteko neurri egokiak biltzen dituen sistema bat sortzera aurkezten dituzten suspertze- eta erresilientzia-planetan, hauen prebentzioa, detekzioa eta zuzenketa barnean hartuta: emandako funtsak erabiltzeko interes-gatazkak, ustelkeria eta iruzurra.

Bestalde, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduak, hau da, Finantza Erregelamenduak ezarri zuen ezen, Europar Batasuneko funtsak administratzeko orduan, estatu kideek Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko behar diren neurri guztiak hartuko dituztela, eta irregulartasunak eta iruzurra prebenitu, detektatu eta zuzendu. 2018/1046 finantza-erregelamendu hori beste erregelamendu honek indargabetu du: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren irailaren 23ko 2024/2509 (EB, Euratom)





Erregelamendua, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu behar zaizkion finantza-arauei buruzkoa, aurreko premisei helduta,

Hortaz, aipatu ditugun EBko erregelamendu horiek eskatzen duten **neurri-sistema horren xedea** da **EBren finantza-interesak babestea**.

Manu horren garapenean, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren bidez sistema bat eratu zen Ministro Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartutako eta Europako Batzordeak berretsitako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plan Nazionala kudeatzeko (hemendik aurrera, SEEP), eta 6.1 artikuluan hau dago xedatuta: «SEEPen neurrien exekuzioan parte hartzen duten entitate erabakitzaile zein betearazle guztiek izan beharko dute “iruzurraren kontrako neurrien plana”, zeinaren bidez bermatu eta deklaratu ahal izango baitute ezen, bakoitzaren jardun-eremuan, dagozkion funtsak arau aplikagarrien arabera erabili direla, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez».

SEEPen entitate betearazlea den aldetik, Bizkaiko Foru Aldundiak, ministro-aginduan xedatutakoa betetzeaz gain, haratago joan nahi du, eta SEMaren Erregelamenduaren eskakizuna ere bete nahi du, hau da, hor aipatu bezala, EBren finantza-interesak babesteko neurri egokiak jasotzen dituen sistema diseinatu nahi du. Horregatik, **Bizkaiko Foru Aldundiaren Neurrien Planaren helburua da, iruzurraz, interes-gatazkaz eta ustelkeriaz gain, irregulartasun sistemikoak prebenitu, detektatu eta zuzentzea**. Hala, asmoa da EBren finantza-interesak behar bezala babestea eta, hortaz, **2024/2509** (EB, Euratom) Finantza Erregelamenduan xedatutakoa betetzea.

Ministro-aginduak eta SEMak SEMaren esparruko proiektuei baino ez diete eskatzen neurri-sistema hori; beraz, plan honetako neurriak lehentasunez egongo dira bideratuta Europako Kontseiluak 2020ko uztailaren 21ean onartutako Next Generation-EU suspertze-tresnaren funtsen bidez finantzatzutako jarduketetara eta, bereziki, SEEPen bidez garatutako SEMaren bitartekoetara, nahiz eta, proiektu horiei ez ezik, Europako gainerako funtsen bidez kofinantzatutako proiektuei ere ezarriko zaien.





2 Aplikazio-eremua

2.a Aplikazio-eremu objektiboa:

Neurriak, lehenik eta behin, Next Generation-EU suspertze-tresnaren funtsen bidez finantzatutako jarduketei ezarriko zaizkie, eta, ahal den neurrian, Europako gainerako funtsen bidez finantzatutako jarduketei.

Neurri horien helburua irregulartasun sistemikoak, interes-gatazkak, iruzurra eta ustelkeria prebenitu, detektatu, zuzendu eta jazartzea izango da.

2.b Aplikazio-eremu subjektiboa (eg. api. 2024 eta **urr. 2025**):

Planaren neurriak foru-eremuko eragile hauei edo Europako funtsen kudeaketarekin, gauzatzearekin edo xedearekin zerikusia duten eragile hauei aplikatuko zaizkie, betiere dagokien nahitaezkotasun-mailarekin:

- Kudeatzeko, kontrolatzeko eta ordaintzeko lanak egiten dituzten enplegatu publikoak, baita beste edozein agente ere, baldin eta eskuordetzan edo mandatuan eman bazaio ataza horietako baten bat, edo ataza kanporatu bada.
- Bizkaiko Foru Aldundiko goi-kargudunak, baita, hala badagokio, erabaki edo jarduketa publikoetan eragina izan dezaketen edo parte har dezaketen behin-behineko langileak ere. Langile horiek, lehentasunez, interesen eta bateraezintasunen arloko foru-araudiaren mende egongo dira.
- Entitate zein pertsona onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak, baldin eta hartzaileak badira edo haien jarduketak Europar Batasunaren funtsen bidez finantzatzen badira, kasuan kasuko kudeaketa-tresnan ezarritako irismenarekin.

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ) plan honetara atxikitzeak berekin ekarriko du, hala badagokio, planak ezartzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren kontrol-mekanismoen mende jartzea, betiere erakunde betearazle gisa jarduten badu.

Era berean, enpresen foru-sektore publikoa osatzen duen edozein entitatek **eta Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza daukaten sozietateek** aukera izango dute PLANari atxikitzeko, baldin





eta SEMaren funtsen bidez kofinantzatutako proiektuak gauzatzen badituzte eta, betiere, Europako kofinantzaketa beraiek eskatu badute eta BFAk ez badie gauzatzeko berariazko mandaturik edo eskuordetzarik egin. Horretarako, ezinbestekoa izango da entitateko organo eskudunak berariaz hala onartzen duen erabakia hartzea.

Hala ere, planari atxikitzen bazaizkio, enpresen foru-sektore publikoa osatzen duten entitateek **eta Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza daukaten sozietateek** beren barne-egituraren eta antolamenduaren arabera egokitu beharko dituzte PLANean aurreikusitako mekanismoak eta tresnak.

Bizkaiko Foru Aldundiak aukera izango du kontrolatzeko ea enpresen foru-sektore publikoa osatzen duten entitateek **eta Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza daukaten sozietateek** betetzen duten planean xedatutakoa, SEMaren funtsen bidez kofinantzatutako proiektuei dagokienez.





3 Araudi aplikagarria (eg. aza. 2024 eta urr. 2025)

Plana egiteko, berariaz aplikatu beharreko lege-araudi hau hartu da kontuan:

EUROPAKO ARAUDIA:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren irailaren 23ko 2024/2509 (EB) Erregelamendua (Finantza Erregelamendua): Hor dago ezarrita ezen, estatu kideek Europar Batasunaren funtsak administratu behar dituztenean, behar diren neurri guztiak hartuko dituztela Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko, eta irregulartasunak eta iruzurra prebenitu, detektatu eta zuzendu.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez ezartzen baita Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM): 22.1 artikuluan dago ezarrita ezen, SEMa egikaritzeko, estatu kideek, SEMaren esparruko funtsen onuradun edo mailegu-hartzaile diren aldetik, behar diren neurri egoki guztiak hartuko dituztela Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko, eta zaintzeko SEMaren bidez finantzatutako neurriei loturiko funtsak Europar Batasunean eta nazioan aplikatu behar den zuzenbidearen arabera erabili direla, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez. Horretarako, estatu-kideek barne-kontrolerako sistema eraginkor eta efiziente bat ezarriko dute, eta oker ordaindutako edo behar ez bezala erabilitako zenbatekoak berreskuratuko dituzte.
- Xedapen erkideen gaineko araudia: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamendua, 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduak aldatua.
- Xedapen erkideen gaineko araudia: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ekainaren 24ko 1060/2021 (EB) Erregelamendua.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra).





- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 5eko 2017/1371 (EB) Zuzentaraua, Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren kontra zuzenbide penalarren bidez borrokatzeari buruzkoa: Zuzentarauak gutxieneko arauak ezartzen ditu arau-hauste penalak eta Europar Batasunaren finantza-interesei eragiten dieten iruzurraren eta legez kanpoko beste jarduera batzuen kontrako borrokari lotutako zehapenak definitzeko, eta ustelkeria aktibo eta pasiboaren legezko definizioa egiten du, zuzentarauaren beraren ondorioetarako.
- EGESIF_14-0021-00: Kudeaketa-agintarientzako (KA) gidalerroak eta gomendioak, iruzurraren kontrako neurri eraginkor eta proportziozkoak abian jartzeko, detektatutako arriskuak kontuan hartuta.
- Interes-gatazkarik ez izateko eta, egonez gero, halakoak kudeatzeko orientabideak, Finantza Erregelamenduaren arabera (2021/C 121/01).

ESTATUKO ARAUDIA:

- Espainiako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (aurrerantzean, SEEP).
- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua, zeina sektore publiko osoan aplikatu behar baita: Kudeaketa-sistema garatzen du SEEPen osagaietan aurreikusitako neurriak (erreformak/inbertsioak)osatzen dituzten proiektuak eta azpiproiektuak definitu, planifikatu, gauzatu, kontrolatzeko eta jarraipena egiteko. 6. artikulua eta eranskinetako batzuek indarra ematen diete iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkek prebenitu, detektatu eta zuzentzeko mekanismoak.
- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onartzen baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. Hor ezartzen denez, administrazio publikoetako langileek printzipio hauen arabera jardun behar dute: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna,





konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurunearen sustapena, eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko errespetua. 53. eta 54. artikuluetan araututako jokabide- eta etika-printzipioek eraturako langile publikoen jokabide-kodearen inspirazioa dira horiek.

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (SPKL). Europako araudi erkidearen transposizioak publikotasuna, gardentasuna eta lehia areagotzen ditu kontratazio publikoan, eta iruzurraren kontrako borrokaren berezko elementuak sartzen ditu, hala nola kontratazio batzuen debekua eta interes-gatazketarako arauak. Horretaz gain, 64. artikulua ere gehitu dute berariaz ustelkeriaren kontra borrokatzeko eta interes-gatazkak prebenitu eta detektatzeko; izan ere, detektatu ezean, eragin negatiboa izan dezakete prozeduren gardentasunean eta lizitatzailleentzako tratu-berdintasunean.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena (SPAJL): Europako funtsekin kofinantzatutako proiektuak administrazio publikoen eta zuzenbide pribatuko subjektuen artean helburu komun baterako hitzarmenak izenpetzeari lotuta badaude eta hitzarmen horien xedea ez bada kontratu publikoei berezko zaizkien prestazioetako bat bera ere, proiektu horiek hitzarmen bidez gauzatu ahal izango dira, eta SPAJLren 47.etik 53.era bitarteko artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute. Era berean, interes-gatazkei lotutako prozeduretako abstentzioa arautzen du lege horrek.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa. Hor xedatzen da nahitaezkoa dela Dirulaguntzen Datu-base Nazionala (DDBN), laguntzak emateko prozesuetan publikotasuna eta gardentasuna bermatzen dituen tresna delako eta iruzurraren eta finantzaketa bikoitzaren kontra borrokatzeko elementu bat delako. Iruzurraren kontrako Koordinazioko Zerbitzu Nazionala (SNCA): Europar Batasunaren finantza-interesak iruzurraren kontra babesteko ekintzak koordinatzeko ardura duen organoa da, Iruzurraren kontra Borrokatzeko Europako Bulegoarekiko lankidetzan (OLAF).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (DPBEDBLO).





- 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, Arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzkoa.
- 2/2023 Legea, otsailaren 20koa, Arau-urratzei eta ustelkeriaren kontrako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa (IBL).
- HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzen duten prozeduretan interes-gatazka izateko arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa.

AUTONOMIA- ETA FORU-ARAUDIA:

- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena. Euskal enplegu publikoa administrazio publikoen eta beraien ente instrumentalen kudeaketarako tresna gisa taxutzen da hor, eta helburutzat du herritarrak eta interes orokorrak zerbitzatzea. Halaber, lege horren gidalerroak dira, besteak beste, printzipio hauek: zerbitzuko objektibotasuna, profesionaltasuna eta inpartzialtasuna, eta kudeaketako eraginkortasuna eta gardentasuna.
- 3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzkoa.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 20ko 105/2021 Foru Dekretua, zeinaren bidez sortzen baita gobernantza-egitura bat eta zeinaren bidez arautzen baitira administrazioa modernizatzeko eta arintzeko neurriak, Europako Next Generation-EU suspertze-tresnatik datozen europar funtsak exekutatzeko.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 4ko 74/2024 Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 20ko 105/2021 Foru Dekretua. 105/2021 Foru Dekretuaren bidez, gobernantza-egitura bat sortzen da eta administrazioa modernizatzeko eta arintzeko neurriak erregulatzen dira, Europako Next Generation-EU suspertze-tresnatik datozen europar funtsak exekutatzeko.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 114/2022 Foru Dekretua, irailaren 27koa, Arriskua Prebenitzeko Batzordea sortu eta arautzen duena, plan honen esparruan: «Bizkaiko Foru





Aldundiaren plana, Europar Batasunak kofinantzatutako proiektuetan osotasuna, kudeaketa-arriskuen prebentzioa eta iruzurraren kontrako neurriak sustatzeko».

- Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 1eko 10/2024 Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 27ko 114/2022 Foru Dekretua. 114/2022 Foru Dekretuaren bidez, Arriskua Prebenitzeko Batzordea sortu eta arautzen da, «Europar Batasunak kofinantzaturiko proiektuetan osotasuna, kudeaketa-arriskuen prebentzioa eta iruzurraren kontrako neurriak sustatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren plana»ren esparruan.
- 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duena.
- 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra eta martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartutako haren erregelamendua arautzen dituen. Haren bidez, dirua itzultzeko arrazoiak eta arau-hausteen eta administrazio-zehapenen araubidea arautzen dira.
- 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa. Araudi horrek publikotasun aktiboaren betebeharrak espezifikatuak ezartzen dizkie Bizkaiko foru-botere publikoei eta foru-sektore publikoko entitateei, eta informazio publikoa irispidean izateko eskubidea arautzen du, helburua baita lurralde historikoko herritarrek, entitateek, eta edozein pertsona edo entitate interesdunek jakin ahal izatea zer-nolakoak diren Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko entitateen gobernu-ekintza eta administrazio-jarduera.
- Bizkaia Erakargune Bihurtzeko Zuzendaritza Nagusiaren 2023ko martxoaren 9ko Ebazpena, zeinaren bidez aditzera ematen baita zein diren irizpide orokorrak Next Generation funtsekin finantzaturako proiektuen kudeaketa-dokumentu eta txostenen sinatzaileak izendatzeko.

BFA-REN ERAKUNDE-OSOTASUNARI BURUZKO ARAUDIA ETA ERABAKIAK

- 5/2018 Foru Araua, azaroaren 21ekoa, Interes-gatazkei eta Bateriaezintasunei buruzkoa. Arau horrek ezartzen du, lehenik, gobernu ona bermatzeko zer printzipiotara egokitu behar





dituzten foru-kargu publikodunek beren jokabideak eta jarduna; bigarrenik, mekanismoak eta tresnak definitu, arautu eta ezartzen ditu interes-gatazkak prebenitu eta konpontzeko; hirugarrenik, identifikatzen du zer kasutan planteatu daitezkeen interes-gatazkak eta bateraezintasunak foru-kargu publikoen kargua utzi aurretik, bitartean eta ondoren; laugarrenik, izendatutako foru-kargu publikoaren estatutua zehazten du, eta, azkenik, berme-sistema bat txertatzen du, eta zehapen-araubidea garatu.

- Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 18ko 14/2020 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautzen baita Interes Gatazken eta Bateraezintasunen Arloko Berme Organoa azaroaren 21eko 5/2018 Foru Arauan ezarritako arau-aurreikuspenak garatzeko.
- Jokabide-gida: «Bizkaiko Foru Aldundian goi-kargudun izendatutako pertsonentzako jokabide-gida» egin da 5/2018 Foru Arauak adierazitako printzipioak gauzatzeko.
- Bizkaiko Foru Aldundiko kargu publikoek etikarekin eta gobernu onarekin hartutako konpromisoa.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 12ko 80/2011 Foru Dekretua, zeinaren bidez sortu eta arautzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiko eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan sartutako gainerako entitateetako kideen eta goi-kargudunen jardueren eta ondasun eta interesen erregistroak eta aitorpenak.
- Jokabiderako informatika-kodea.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Etika eta Jokabide Kodea.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Etika eta Jokabide Kodea, Europako funtsen kudeaketan dauden arriskuak kudeatzeko.
- Iruzzurraren kontrako adierazpen instituzionala, Ahaldun Nagusiaren Kabineteko Bizkaia Erakargune Bihurtzeko Zuzendaritzak Europako funtsen arloan (EGEF) sinatua.
- Iruzzurraren kontrako adierazpen instituzionala, plan honekin batera onartzen den SEEPen arlokoa (I. eranskina).
- Arau-hausteen gaineko barneko informazio-sistema (BIS) deritzon salaketa-kanalaren kudeaketa- eta ikerketa-prozedura (V. eranskina).





- Interes-gatazka posibleak tratatzeko, plan honekin batera onartzen den prozedura (III. eta IV. eranskinak).
- Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 6ko 75/2023 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundian arau-hausteen gaineko informazioa emateko eta informatzaileak babesteko barne-sistema sortu eta arautzen duena.





4 Glosarioa (eg. 2023 eta urr. 2025)

IRREGULARTASUNA: Egitura- eta inbertsio-funtsen (aurrerantzean, EIE funtsak) xedapen erkideei buruzko erregelamenduaren 2. artikuluko 36. apartatuan, honela dago definituta «irregulartasuna»: *Europako egitura- eta inbertsio-funtsak betearazten parte hartzen duen operadore ekonomiko baten ekintza edo ez-egite baten ondorioz Batasuneko zuzenbidea edo haren aplikazioari buruzko zuzenbide nazionala ez betetzea, Batasunaren aurrekontuan ondorio kaltegarria badu edo izan badezake, justifikatu gabeko gastu-partida bat egozten diolako.*

IRREGULARTASUN SISTEMIKOA: *Europako egitura- eta inbertsio-funtsen (EIE) xedapen erkideei buruzko erregelamenduaren 2. artikularen 38. apartatuan, honela dago definituta «irregulartasun sistemikoa»: Irregulartasun oro, errepikaria izan daitekeena eta antzeko eragiketa-motetan gertatzeko probabilitate handia duena, kudeaketa- eta kontrol-sistema baten funtzionamendu eraginkorraren akats larriaren ondoriozkoa, bereziki erregelamendu honen eta funtsen arau espezifikoaren arabera prozedura egokiak ez ezartzearen ondoriozkoa.*

IRUZURRA: Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren kontrako borrokari buruzko 2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 3. artikularen arabera (aurrerantzean, PIF zuzentaria), iruzurra da nahita (gastuaren arloan) gai hauei buruzko edozein ekintza edo ez-egite izateko aukera:

- Adierazpen edo dokumentu faltsu, oker edo osatugabeak erabili edo aurkeztea, Europar Batasunetik datozen funtsak bidegabe jasotzea edo atxikitzea badakar ondorioz.
- Informazioaren bat jakinarazteko berariazko betebeharrak ez betetzea, lehen adierazitako ondorio bera badu.
- Funtsak hasiera batean pentsatu ziren helburuetarako ez beste batzuetarako desbideratzea.

USTELKERIA: Iruzurraren kontrako borrokari buruzko 2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 4. artikulua ustelkeria pasiboa eta ustelkeria aktiboa definitzen ditu:

- a) USTELKERIA PASIBOA honi esaten zaio: «zuzenean edo bitartekari baten bidez berarentzat edo hirugarrenentzat edonolako abantailak eskatzen edo jasotzen dituen edo abantaila





baten promesa onartzen duen funtzionarioaren ekintzari, xedea bada Batasunaren finantza-interesei kalte egiten dien edo kalte egin diezaiekeen moduan jardutea edo jarduteari uztea, bere eginbeharraren arabera edo bere eginkizunak gauzatzeko orduan».

- b) USTELKERIA AKTIBOA honi esaten zaio: «zuzenean edo bitartekari baten bidez funtzionario bati, beretzat edo hirugarrenentzat, edonolako abantailak agintzen, eskaintzen edo ematen dizkion edozein pertsonaren ekintzari, xedea bada Batasunaren finantza-interesei kalte egiten dien edo kalte egin diezaiekeen moduan jardutea edo jarduteari uztea, bere eginbeharraren arabera edo bere eginkizunak gauzatzeko orduan».

INTERES-GATAZKA (aurrerantzean IG): Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren irailaren 23ko 2024/2509 (EB, Euratom) Erregelamenduak, hau da, Finantza Erregelamenduak 61. artikuluan ezartzen du IGa dagoela baldin eta finantza-eragileek eta aurrekontuaren betearazpenean eta kudeaketan zuzenean, zeharka eta modu partekatuan parte hartzen duten gainerako pertsonak beren eginkizunen gauzatze inpartziala eta objektiboa arriskuan ikusten badute alderdi hauei lotutako arrazoiengatik: familia, afektibitatea, kidetasun politikoa edo nazionala, interes ekonomikoa edo interes pertsonaleko zuzeneko zein zeharkako beste edozein.

ORGANO KUDEATZAILEA: Entitate betearazlearen eremuan, proiektuaren edo azpiproiektuaren kudeaketa-txostena egiteko, sinatzeko eta izapidetzeko ardura duen organoa. Horrez gain, organo kudeatzaileak aurreikuspenen txostenak eta proiektuaren edo azpiproiektuaren mugarri eta helburu kritiko eta ez-kritikoen betetze-ziurtagiriak sinatuko ditu.

Eginkizun hauek ditu:

- I. Proiektuaren edo azpiproiektuaren kudeaketa-txostena egin, sinatu eta izapidetzea.
- II. Aurreikuspenen txostenak sinatzea.
- III. Azpiproiektuaren mugarriak eta helburu kritikoak eta ez-kritikoak betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagiriak sinatzea.
- IV. Beste erabiltzaile batzuei aukera ematea azpiproiektu bakoitzean elkarri eragin ahal izateko.





- V. **Europako Funtzen Plataforma Komunean** (aurrerantzean, CoFFEE) eragiketaren arduradunak identifikatzea, azpiproiektu bakoitzaren interes-gatazka aztertzekeo prozedura kudeatzeko, MINERVA aplikazioaren bidez; eragiketarako erreferentzia-kodea (CRO) sortzen laguntzea, eta, hala badagokio, interes-gatazkaren analisiaren emaitzak jasotzea.

ARDURADUN TEKNIKOA: Honen ardura duen organo kudeatzailearen barruko langileak:

- I. Organo kudeatzailearen titularrak CoFFEE aplikazio informatikoaren bidez edo ezartzen den beste edozein bitartekoren bidez jakinarazi behar dituen datu guztiak ontzat ematea.
- II. Organo kudeatzailearen titularrari laguntza ematea.
- III. Ogasun eta Finantza Saileko Aurrekontuetarako eta Ekonomia Kontrolerako Zuzendariordetzarekiko bitartekari-lanak egitea.
- IV. Osotasuna, kudeaketa-arriskuen prebentzioa eta iruzurraren kontrako neurriak sustatzeko BFaren planean, arrisku-matrizea egitea.

PROZEDURAREN ARDURADUNA (KONTRATATATZEKO EDO DIRULAGUNTZAK EMATEKO): Kontratazioaz eta dirulaguntzak emateaz arduratzen den zerbitzuaren titularra da.

ERAGIKETAREN ARDURADUNA (HFP/55/2023 Agindua): Kontratazio-organoaren edo dirulaguntza ematen duen organoaren titularra da, edo, hala badagokio, eskumena eskuordetuta daukan organoaren titularra, edo kontratatzekeo eskumena esleituta daukana, edo dirulaguntza emateko eskumena eskuordetuta edo deskontzentratuta daukana. Kontratazio-organoaren eginkizunak betetzen dituzten kide anitzeko organoak badira, haien ordezkariak dira.

Eginkizun hauek dituzte:

- I. Eragiketarako erreferentzia-kodea (CRO) lortzea, CoFFEE aplikazioak sortuta.
- II. ZAEA – **Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren** MINERVA tresnan, datuak eskuratu eta erregistratzea, interes-gatazken analisi sistematikoa egin dezan.





ERABAKITZAILEAK (HFP/55/2023 Agindua): Eginkizun hauek (edo parekoak) betetzen dituzten pertsonak dira:

1. Kontratuen arloan: kide bakarreko kontratazio-organoa, kide anitzeko kontratazio-organoa kideak, eta kontratazio-organoari laguntzeko kide anitzeko organoko kideak, eskaintzak baloratzeko, esleipen-proposamena egiteko eta kontratua esleitzeko faseetan kontratazio-prozeduretan parte hartzen dutenak. Hala badagokio, horiek izango dira kontratazio-eskumen eskuordetuak erabiliko dituztenak.
2. Dirulaguntzen arloan: dirulaguntzak emateko organo eskuduna, eta eskabideak baloratzeko kide anitzeko organoetako kideak, eskabideak baloratzeko eta laguntzak emateko ebazpenak emateko faseetan. Hala badagokio, eskuordetzearen edo deskontzentrazioaren bidez dirulaguntzak emateko eskumenak dituzten pertsonak izango dira.

Eginkizun hauek dituzte:

- I. **Interes-gatazkarik ezaren adierazpenak** (IGEak) elektronikoki sinatzea, eskaintzak edo eskabideak baloratu aurretik eta kontratazio-prozeduretako edo dirulaguntzak **emateko** prozeduretako parte-hartzaileak nork diren jakiten den unean.
- II. Eskatzen diren neurriak hartzea arriskuen analisia egin ondoren lortutako emaitzen arabera.
- III. Eraginpeko erabakitzaileak prozeduran parte har dezala onartzea ebaztea, arrazoiak emanda, edo erabakitzaileari abstentzioa agintzea.





5 Kudeaketa-printzipioak

Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa-printzipioak hauek dira:

- Aplikatu beharreko legeak betetzea.
- Baliabide publikoak behar bezala erabiltzea, hau da, onartutako programazioaren arabera, eraginkortasunez eta kontuak emanda.
- Osotasuna eta profesionaltasuna.
- Informazioa erabiltzeko zintzotasuna, gardentasuna eta zuzentasuna.
- Autonomia, objektibotasuna eta independentzia, erantzukizun publikoaren eta gaitasun profesionalaren balioak oinarritzat hartuta.
- Tratu inpartziala eta ez-diskriminatzailea.
- BFaren izen ona babestea.
- Banaketa funtzionala, kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-eginkizunak zenbait organok egiten dituztela bermatuta.
- Efizientzia.
- Herritarrekiko argitasuna, errespetua eta hurbiltasuna.





6 Bizkaiko Foru Aldundiaren antolaketa eta gobernantza (eg. aza. 2024)

Aurrekontuei buruzko foru-arau orokorraren testu bateginak ezartzen duenez, foru-sektore publikoa hauek osatzen dute: administrazioko foru-sektore publikoak (BFAk eta GUFek osatua) eta enpresen foru-sektore publikoak (foru-entitate publiko enpresarialek, merkataritzako foru-sozietateek eta foru-fundazioek osatua).

BFAren egitura organikoa ahalduen nagusiaren foru-dekretuaren bidez ezartzen da. Dekretu horretan daude zehaztuta foru-sailak eta bakoitzaren jardun-eremuak eta eginkizunak. Sail horietako bakoitzak egitura organikoari buruzko bere dekretu eguneratua dauka.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 20ko 105/2021 Foru Dekretuaren bidez, zeina uztailaren 4ko 74/2024 Foru Dekretuak aldatu baitzuen, gobernantza-egitura sortu zen, eta administrazioa modernizatu eta bizkortzeko neurriak arautu ziren, Next Generation-EU Europako suspertze-tresnaren ondoriozko Europako funtsak gauzatzeko. Dekretua osorik aplikatuko zaio Bizkaiko Foru Aldundiari, eta, II. kapituluko aurreikuspenei dagokienez, Bizkaiko Lurralde Historikoko sektore publikoko gainerako entitateei, baldin eta koordinazio-batzordeko kide badira.

Gobernantza-dekretu horretan, Europako funtsen arloko eskumena duen zuzendaritzari esleitzen zaizkio Next Generation-EU funtsekin finantzatutako proiektuen koordinazioa eta jarraipena. Gaur egun, Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritzak hartu ditu bere gain eginkizun horiek. Era berean, zuzendaritza horrek ordezkatzeko du Bizkaiko Foru Aldundia, 36/2020 Errege Lege Dekretuan araututako funtsetarako koordinazio-foro egokietan (36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen)


Era berean, gobernantza-dekretu horren bidez batzorde hauek sortu dira, Europako funtsen arloko eskumena duen zuzendaritzari atxikita:

- ✓ Next Generation-EU funtsetarako koordinazio-batzordea, lan hauek egiteko: sustapena, laguntza eta sostengu teknikoa. Dekretu horretan dago zehaztuta nola osatuko den.
- ✓ Next Generation-EU funtsen sailarteko batzorde teknikoa, funtsak kudeatzeko zeregin teknikoak egiteko.





Hau organigrama eguneratu bat da, Europako Next Generation-EU funtsak kudeatzeko eginkizun eta erantzukizunen xehetasuna ere barnean hartuta:





Europako funtsen kudeaketari dagokionez, BFAk zeharkako egitura du, argi eta garbi definitutako bi arlotan banatuta: Ogasun eta Finantza Saila eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila.

Nabarmendu behar da, sail bakoitzak bere eginkizunak esleituta dauzkan arren, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismitik datozen funtsek finantzatutako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko jarduketak planifikatu, programatu, kudeatu, ebaluatu eta kontrolatzeko atazak egikaritzea ez da eginkizun estankoa, eta ataza guztiak ezin zaizkio sail bakar bati egotzi.

Ilido horretan, funts horiek kudeatzeko esku-hartzerik zuzenena daukaten eginkizunak hauek dira:

Ogasun eta Finantza Sailaren eginkizunak

1. Next Generation EU funtsetarako koordinazio-batzordeburua izatea, Europako funtsen arloko eskumena duen zuzendariaren bitartez, sustapena, laguntza eta sostengu teknikoa emango baititu. Gaur egun, Zuzendaritza Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak dauzka bereganatuta eskumen horiek.
2. Gainera, zuzendaritza horri eginkizun hauek ere badagozkio:
 - a) Next Generation-EU funtsetatik datozen finantzaketa-aukerak identifikatzea, eta funts horiek lortzeko proiektuak aurkezten laguntzea.
 - b) Europako funtsak garatu eta egikaritzeko gidalerro orokorrak ezartzea.
 - c) Proiektuak gauzatzeko jarraipen estrategikoa egitea.
 - d) Gobernu Kontseiluak haren gomendio uzten dituen gainerako eginkizunak betetzea, Europako funtsen arloko zuzendaritza eskudunaren egitura organikoa arautzen duen dekretuan aurreikusitakoaren arabera dagozkion eginkizunez gain.
3. Aurrekontuetarako eta Ekonomia Kontrolerako Zuzendariordetza kide izango da koordinazio-batzordean, kontuan hartu behar baita eskumena duela esku-hartzearen, fiskalizazioaren, kontrolaren eta auditoriaren gainean, eta bera izango dela Next Generation-EU funtsen sailarteko batzorde teknikoaren burua.





4. Era berean, Aholkularitzako eta Zerga Politikako Zuzendariordetza ere kide izango da koordinazio-batzordean, Estatuarekiko edo Eusko Jaurlaritzarekiko finantza-fluxuak kontrolatzeko.
5. Urtean behin gutxienez, Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak jakinaren gainean jarri behar ditu Bizkaiko Batzar Nagusiak, eta adierazi nola dauden programatuta edo gauzatuta abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuan foru-sektore publikokorako erregistratu eta araututako proiektuak.
6. Plan hau, onartu ondoren, BFAn eta BFAtik kanpo zabaltzea.
7. Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartuko ditu jardun-eremuan dagozkion edo SEMaren kontrol-agintaritzak esleitzen dizkion esku-hartze, fiskalizazio, kontrol eta auditoriako eginkizunak eta eskumenak, Estatuaren Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiari esleitutako koordinazio-eskumenen arabera (aurrerantzean, EAKN/IGAE). Eginkizun gehigarri horiek betetzeko, askatasuna izango du funtsen kudeaketan parte hartzen duten entitate publikoen informazio-sistemetara iristeko edo funtsak gauzatzeko jarduerak agertzen diren edozein erregistrotara iristeko. Edozein entitate publiko edo pribatu behartuta egongo da eginkizun horiek betetzeko eskatzen zaion informazioa ematera.

Ataza hori Aurrekontuetarako eta Ekonomia Kontrolerako Zuzendariordetzako zerbitzuek egingo dute. Zehazki, eginkizun hauek izango dituzte:

- Administrazio-egintza guztiak kontrolatzea, baita EBren finantza-interesei eragin diezaieketen eta garrantzi ekonomikoa duten egitateak edo eragiketak ere. Hala ere, eduki ekonomikoko egintzak, gertaerak eta eragiketak gertatu aurretik egingo du kontrol hori. Horretarako, BFAko sailek espedienteak igorri beharko dizkiote Ogasun eta Finantza Sailari, erregelamenduz ezarritako baldintzetan.
- Amaitu ondorengo une batean, EBren finantza-interesei eragin diezaieketen eta garrantzi ekonomikoa duten gertaerak edo eragiketak kontrolatzea. Besteak beste, EBk kofinantzatutako dirulaguntzen finantza-kontrolak egingo dira onuradunei dagokienez.





- Kofinantzatutako proiektuen organo kudeatzaile arduradunei laguntza eta aholkularitza ematea prozeduraren fase guztietan, eta gomendioak ematea barne-kontrolako legezkotasun-txostenak eginez.
- Sail betearazleen zerbitzuei eta zeharkako sailen zerbitzuei laguntzea kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan.

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren eginkizunak

1. Kontratazio Zerbitzuari hau dagokio:

- EBren finantza-interesei eragin diezaieketen kontratuak kudeatu eta izapidetzea, foru-unitateek eta -sailek sustatutako administrazio-kontratuei eta kontratu pribatuei dagokienez.
- EBk kofinantzatutako kontratuen arloko aholkularitza juridikoa ematea BFaren administrazio-unitateei, hala eskatzen badute. Horretaz gain, BFaren kontratazio-organoei ere aholkularitza ematea Kontratazio Mahai Nagusian, eta kontratu horien betearazpena kontrolatzen laguntzea, behar bezala bete daitezen (adibidez, klausula sozialei, ingurumenari eta beste politika publiko batzuei dagokienez).
- EBk kofinantzatutako kontratuen arloko txosten juridikoak egitea, nahitaezkoak badira. Horretaz gain, Europako araudiaren, jurisprudentziaren eta doktrinaren jarraipena, kontrola eta zabalkundea ere egitea, eta BFAn aplikatu beharreko arau-aldaketak ezartzea, aldaketa horien ondoriozko irizpideak prestatzearekin batera.

2. Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak ardura hauek ditu:

- Kudeatzea bai Europako funtsen kargura finantza daitezkeen proiektuak kudeatu eta gauzatzeko behin-behineko unitateen sorrera, bai unitate horietako lanpostuen hornidura.
- Zuzendaritza horren barruan, Trebakuntza eta Garapen Profesionalerako Atalak, besteak beste, honetarako diseinatutako prestakuntza-jarduerak gauzatzeko eginkizuna izango du: Next Generation-EU funtsei lotutako atazak garatzeko eta kudeaketa publikorako garrantzi berezia duten arloetan ikusitako beharriazaneiei erantzuteko.





7 Diagnostikoa: indarguneak eta ahulguneak (eg. aza. 2024 eta urr. 2025)

Neurri egokiak eta eraginkorrak diseinatu ahal izateko, aldez aurreko autoebaluazioa egin behar da. Funtsak Kudeatzeko Zerbitzua arduratu zen, Auditoria Zerbitzuarekiko lankidetzan, irregulartasun sistemikoen, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken arriskuaren lehen ebaluazio bat egiteaz, plan hau onartu zen egunean. Planean, proposatu zen (10. apartatua) Arriskua Prebenitzeko Batzordea sortu eta arautzen duen Foru Dekretuaren bidez ezartzeko batzorde hori arduratuko zela ebaluazio hori errepikatzeaz, printzipioz, bi urterik behin, eta, nolanahi ere, kasuren bat detektatzen den bakoitzean edo prozedurak edo langileak modu esanguratsu batean aldatzen direnean.

Irailaren 27ko 114/2022 Foru Dekretuaren bitartez sortutako Arriskua Prebenitzeko Batzordeak –otsailaren 1eko 10/2024 Foru Dekretuak aldatuta– plana lehenengoz eta hirugarrenez eguneratu zenean errepikatu zuen ebaluazioa.

Planaren eguneratze hau dela eta, berriz ere egin da ebaluazioa. Plan honen II. eranskinean jasotako ebaluazio horren emaitzetatik, indargune eta ahulgune hauek ondorioztatu dira:

INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
(1)Iruzuraren kontrako neurrien plan bat dago. Agiri bizi bat da, eguneratu eta zabaldu egiten baita.	
(2)Iruzuraren Kontrako Neurrien Planak erraztasunak ematen dizkie enpresen foru-sektore publikoa osatzen duten entitateei eta BFaren partaidetza daukaten sozietateei planari atxikitzeke.	
(3)Mailarik gorenean, iruzurraren kontrako konpromisoari buruzko adierazpen bat dago.	
(4)Proiektu guztien arriskuen ebaluazioa egiten da. Egindako ebaluazioak erregistratu eta kontrolatu egiten dira. Eta egindako arrisku-ebaluazioak erregistratu eta kontrolatu egiten dira. Halaber,	





INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
MINERVA ezartzeaz batera, arriskua ebaluatzeko erabiltzen zen arrisku-matrizea aldatu da, besteak beste, proiektu bakoitzaren interes-gatazkaren arriskukoa.	
(5) Bizkaiko Foru Aldundiaren Etika eta Jokabide Kodea dago, langile guztiei aplikatu beharrekoa. Horren barruan, opari-politika dago.	
(6) Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazka detektatzeko prestakuntza ez da eten.	Beharrezkotzat jo da plana eguneratu ahala orain arte emandako prestakuntza eguneratzea eta langile guztiei ematen jarraitzea.
(7) Interes-gatazkarako ex-ante prozedura bat dago goi-kargudunentzat, eta beste bat gainerako langileentzat. Halaber, ex-post prozedura bat dago ex-ante analisia bete ez denerako.	
(8) Erabakitze ahalmena duten parte-hartzaile guztiek IGEA betetzen dute.	
(9) Iruzur-adierazleak edo alerta-seinaleak daude (bandera gorriak).	Beharrezkotzat jo da, kasu batzuetan, neurriak ezartzea, gastuaren trazabilitatea hobetu edo sinplifikatzeko.
(10) Datuen prospekzioa egiteko edo arriskuak puntuatzeko tresnak erabiltzen dira.	
(11) Salaketetarako kanal bat dago, eta kanal hori kudeatzeaz eta prozeduraz arduratzen den unitate bat.	
(12) Detektatutako irregularitasunak zuzentzeko eta jazartzeko prozedurak daude.	
(13) Iruzuraren Kontrako Neurrien Planean bertan dago horretarako prozedura ezarrita.	
(14) Iruzuraren Kontrako Neurrien Planean bertan dago horretarako prozedura ezarrita.	





INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
(15) Iruzurraren Kontrako Neurrien Planean bertan dago horretarako prozedura ezarrita.	
(16) Iruzurraren Kontrako Neurrien Planean bertan dago horretarako prozedura ezarrita.	

- (1) Plana Gobernu Kontseiluaren 17/05/2022 Erabakiaren bidez onartu da.

2023/12/12an, lehen eguneratzea onartu zen, funtsean beharrezkoa zelako, batetik, arriskuen beste ebaluazio bat egitea; bestetik, interes-gatazken prozedura urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan ezarritakora egokitzea, eta, azkenik, Salaketen barne-kanalaren kudeaketa- eta ikerketa-prozedura ekainaren 6ko 75/2023 Foru Dekretuan xedatutakora egokitzea, zeinaren bidez salaketen barne-kanal bakarra ezartzen baita, izen honekikoa: Arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barne-sistema.

2024/04/17an, bigarren eguneratzea onartu zen, aukera eman behar zaiolako enpresen foru-sektore publikoa osatzen duen edozein entitateri planari atxikitzeko, baldin eta zuzenean ari badira SEMaren funtsekin kofinantzatutako proiektuak gauzatzen.

2024/12/02an, hirugarrenez eguneratu da hauen ondorioz: lehenik, onartu direlako uztailaren 4an 74/2024 Foru Dekretua eta, 2024ko uztailaren 24an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Etika eta Jokabide Kodea; bigarrenik, eranskin gisa txertatu delako interes-gatazketarako ex-post analisirako gida, eta, hirugarrenik, ondorioz, arriskuen beste ebaluazio bat egin behar delako.

Orain, laugarren eguneratze arrazoitua egiten da, batez ere, IKPren II. eranskina aldatu delako (Interes-gatazkaren, iruzurraren prebentzioaren eta ustelkeriaren testa), AMIA diagnostikoa berrikusi delako (Indarguneak eta ahulguneak), aplikazio-eremu subjektiboa zabaldu delako, eta arauak eguneratu direlako.

- (2) Gaur egun, neurri eraginkorrak jasotzen dituen plan oso bat dago. Prestakuntza- eta komunikazio-neurriak ezarri dira; beraz, esperokoa da BFaren betearazpen-maila guztiek plana ezartzea lortzea. Gainera, plana bigarrenegiz eguneratuta aukera eman zitzaion





enpresen foru-sektore publikoa osatzen duen edozein entitateri planari atxikitzeko. Eguneratze honetan, proposatzen da Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza daukaten sozietateek planari atxikitzeko aukera izan dezatela.

- (3) Gobernu Kontseiluak, planaren lehen bertsioa onartzearekin batera, I. eranskinean jasotako «Iruzurraren kontrako adierazpen instituzionala» ere onartu zuen.
- (4) Egindako matxizeak eta bakoitzaren data erregistratuta daude. Hala, aldian-aldian berrikusten dira.
- (5) 2024/07/24an Bizkaiko Foru Aldundiko Etika eta Jokabide Kodea onartu da, nahiz eta lehendik ere bazeuden Etika eta Gobernu Onaren Kodea, goi-kargudunentzat, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Etika eta Jokabide Kodea, Europako funtsak kudeatzeko arriskuetaarako.

Informazio hori eskuragarri dago Bizkaia.eus webgunean eta intraneten. Horrez gain, berariazko webgune espezifiko bat sortu da, Europako funtsei buruzko informazio interesgarria zabaltzeko.

- (6) 2023/05/15ean, planari buruzko prestakuntza hau eman zen: BFAko iruzurraren kontrako neurrien plana. EBk kofinantzatutako funtsen kudeaketa etikoa. Halaber, plana hirugarrenez eguneratu denez, 2025eko ekain-uztailetako prestakuntza egin da. Indarreko eguneratzea dela eta, berriro aurreikusi da prestakuntza ematea.
- (7) Planaren lehen bertsioa onartzeaz batera, interes-gatazketarako prozedura bat onartu zen, BFAko langileei, lizitatzailerei, dirulaguntzen eskatzaileei eta funtsen hartzaileei aplikatzeko, EBren funtsekin kofinantzatutako proiektuak gauzatzeko lankidetzak-hitzarmenak oinarritzat hartuta (III. eta IV. eranskinak). Prozedura egokitzen joan da sortzen ziren betebeharren arabera (HFP/55/2023 Agindua).

MINERVAREN izapidea bete ez duten proiektuen organo kudeatzaileei jakinarazi zaie beharrezkoa dela ex-post analisia egitea ahalik eta arinen, eta txosten bidez arrazoitu behar dutela zergatik ez duten izapide hori egin.





- (8) Gaur egun, eta planean xedatutakoa betetzeko, erabakitzeko ahalmena duten pertsona guztiek, alde batera utzita zer tresna juridiko erabili duten, IGEA sinatu dute NEXT-Generation-EU funtsekin kofinantzatutako proiektu guztietan.
- (9) Horren berri eman zaie langileei, arriskuak ebaluatzeko tresnaren bidez (arrisku-matrizea) eta planaren prestakuntzaren bidez. Era berean, iruzur-adierazleak eta alerta-seinaleak eguneratzen joan dira ikusitako beharren arabera.
- (10) Arriskuak identifikatzeko, hartutako esperientziak eta jakintzak aplikatzen dira.
- (11) Planaren lehen bertsioa onartu aurretik, iruzurraren kontrako postontzi bat zegoen, non edonork salatu zitzakeen Bizkaiko Foru Aldundiak emandako laguntza edo ordainketak, baldin eta EGEF edo EGIF funtsen Europako kofinantzaketa jaso bazuten eta, salatzailearen ustez, iruzurrezko edo engainuzko jardunbidetzat hartzea bazegoen. Planaren lehen bertsioan xedatutakoa betetzeko, salaketa horren xedea zabaldu da Europako edozein kofinantzaketatar, hala nola Next Generation-EU funtsetara. 75/2023 Foru Dekretuaren ondorioz (Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 6ko 75/2023 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundian arau-hausteen gaineko informazioa emateko eta informatzaileak babesteko barne-sistema sortu eta arautzen duena), salaketetarako barne-kanal bakar bat ezarri da, BIS - Barneko informazio-sistema izenpean, eta horren barruan txertatu da lehengo postontzia. Kanal berri horrek irismen handiagoa du, eta betetzen ditu Arau-urratzei eta ustelkeriaren kontrako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko otsailaren 20ko 2/2023 Legean xedatutako baldintza eta berme guztiak.
- Salaketa-kanalerako irispidea hobetu da, Europako funtsetarako beste webgune bat sortuta.
- (12) Planaren lehen bertsioa onartu aurretik, egitura-funtsen esparruan prozedura batzuk zeuden detektatutako irregulartasunak zuzentzeko. Planean xedatutakoa betetzeko, betebeharrak berrietara egokitu dira prozedura horiek.

(13), (14), (15) eta (16) Iruzuraren Kontrako Neurrien Planaren 10. apartatuan, «Iruzuraren kontrako zikloko neurriak: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena» izenburupean, tresna eta prozedura batzuk daude ezarrita, besteak beste, irregulartasun sistemiko, iruzur, ustelkeria edo interes-gatazka gisa katalogatu diren ekintzak zuzendu eta jazartzeko. Tresna





eta prozedura horien barruan, kontrolak eta neurriak daude irregulartasunen bat detektatzen denerako.

Egindako diagnostikoa oinarritzat hartuta, beharrezkotzat jo da emandako prestakuntza egokitzea plan honetan egindako eguneratzeen arabera, eta, gainera, horrela, etika publikoa sustatzea lortzea.

IX. eranskinean, jarraipen-taula bat erantsi da. Taula horretan dago adierazita zer ekintza egin den planean ezarritakoa betetzeko, eta zein dagoen oraindik egin gabe planaren eguneratze-datan.





8 Interes-gatazka (eg. 2023, aza. 2024 eta urr. 2025)

«Glosarioa» izeneko 4. apartatuan adierazi bezala, interes-gatazka (IGa) dago baldin eta finantza-eragileek eta aurrekontuaren betearazpenean eta kudeaketan zuzenean, zeharka eta modu partekatuan parte hartzen duten gainerako pertsonak beren eginkizunen gauzatze inpartziala eta objektiboa arriskuan ikusten badute alderdi hauei lotutako arrazoiengatik: familia, afektibitatea, kideatasun politikoa edo nazionala, interes ekonomikoa edo interes pertsonaleko zuzeneko zein zeharkako beste edozein. Hala ere, Finantza Erregelamenduarekin bat etorriz, interes-gatazkako egoerak kudeatzeko edo halakorik ez izateko moduari buruz Europako Batzordeak 2021/C121/01 komunikazioaren bidez emandako orientazioen arabera, *«parte-hartzeak esanguratsua izan behar du: pertsonak ahalmena izan behar du aurrekontua betearazteko nolabaiteko diskrezio- edo kontrol-maila bat (hau da, jarduteko ahalmena edo jarduleei jarraibideak emateko ahalmena; edo jarduleei aholkuak edo irizpenak emateko eginkizuna)»*.

Beste alde batetik, Finantza Erregelamenduen 170.1 c) artikularen arabera, *kontratuak esleitzeko, kontuan hartuko dira esleipen-irizpideak, baina, edonola ere, kontratazio-organoak egiaztatu behar du, besteak beste, baldintza hauek betetzen direla: «hautagaiak edo lizitatzailerak kontrataziorako sarbidea duela, kontratazio-agirietan ageri diren hautatze-irizpideak betetzen dituela, eta ez dagoela interes profesionalekiko interes-gatazkarik»*. Eta nahiz eta berariaz ez den aipatzen dirulaguntzen edo finantzaketaren eskatzaileek izan dezaketen IGa, arestian dauzkagu Batzordearen orientabideak, eta hor interes-gatazkako adibide hau dago: dirulaguntza-prozedura bateko eskatzaile batek aurretik kanpoko aditu gisa lagundu baitzuen prozedura beraren oinarriak prestatzen.

Interes-gatazkan inplikaturako parte-hartzaile posibleak hauek dira, beraz:

- i. Kudeaketaren, kontrolaren eta ordainketaren arloetan erabakitzeko ahalmena duten enplegatu publikoak, eta erabakitzeko ahalmen hori eskuordetuta daukaten beste agente batzuk.
- ii. Europako funtsekin finantzaturako jarduerak egiten dituzten lizitatzailerak edo dirulaguntzen eskatzaileak, baldin eta beren interesen alde jardun badezakete, baina EBren finantza-interesen kontra, interes-gatazka baten esparruan.



Interes-gatazka eragiten duen egoera kontuan hartuta, hauek bereiz daitezke:

- i. Itxurazko interes-gatazka: hori gertatzen da enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuek arriskuan jartzen badute bere eginkizunak edo betebeharrak objektibotasunez betetzea; baina, azkenik, ez bada lotura identifikagarri eta indibidualik topatzen pertsonaren jokabidearen, portaeraren edo harremanen alderdi zehatzekin (edo alderdi horietan izandako ondorioren batekin).
- ii. Interes-gatazka potentziala: hori gertatzen da enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuak eragingarriak izateko modukoak badira, etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar izanez gero.
- iii. Interes-gatazka erreala: hori gertatzen da betebeharrak publikoaren eta enplegatu publiko baten interes pribatuen arteko gatazka badakar, edo enplegatu publiko batek dauzkan interes pertsonalek behar ez bezalako eragina sortu ahal badute eginbehar eta erantzukizun ofizialetan. Onuraduna izanez gero, funtsen laguntza eskatzeko orduan hartutako betebeharren eta interes pribatuen arteko gatazka da, interes pribatuek eragina izan dezaketelako aipatutako betebeharrak behar ez bezala betetzeko.

Interes-gatazka eta ustelkeria ez dira gauza bera. Ustelkeriak, oro har, gutxienez bi kideren arteko akordioa egotea eskatzen du, tartean direla zerbait ordaintzea, eroskeria edo edozein abantaila. Interes-gatazka izateko, pertsonak bere interes pribatuak bere betebeharrak profesionalen aurretik jartzea dauka. Prozeduran behar bezala jorratzen ez den interes-gatazka batek eragina du prozedura horren erregularatasunean, eta ekarriko du gardentasunaren, tratu-berdintasunaren edo diskriminaziorik ezaren printzipioak urratzea.

Bizkaiko Foru Aldundiari aplikatu dakizkiokeen interes-gatazkako adibide zehatz batzuk dira hauek:

- Lizitazio-prozedura gainbegiratzeko ardura duen funtzionarioaren ezkontideak lizitatuzaileetako batentzat lan egiten du.
- Pertsona batek sozietate baten akzioak ditu. Sozietate horrek lizitazio-prozedura batean parte hartzen du, eta ebaluazio-batzordeko kide izendatzen dute.





- Dirulaguntza-deialdi bateko eskabideak ebaluatzeaz arduratzen den pertsona bat interes-gatazka izan daitekeen edo objektiboki hala hauteman daitekeen egoera batean egon daiteke, kasu hauetan:
 - i) Pertsonak (edo haren bikotekideak) aldi berean aholkularitza-lanak egiten ditu, aholkularitza-sozietate batentzat, edo sozietate horri zerbitzuak ematen dizkion hirugarren batentzat, dirulaguntza-eskabideak aurkezteari dagokionez.
 - ii) Pertsona (edo zuzeneko senide bat) dirulaguntza-deialdira aurkezten den enpresa baten zuzeneko edo zeharkako jabea da.
 - iii) Dirulaguntza-deialdira aurkezten den enpresa baten zuzendari edo jabeen laguna da pertsona.
 - iv) Funtzio publikoko lanpostua utzi baino lehen, dirulaguntza-deialdira aurkezten den enpresa batean negoziatzen du etorkizuneko bere enplegua.
 - v) Pertsonak duela gutxi lan egin du dirulaguntza-deialdira aurkezten den eta orain finantzaketa eskatzen duen enpresaren sektore zehatzaren kargura zegoen enpresa bateko zuzendaritza-postu batean.
- Kontratazio- edo dirulaguntza-prozedura batean lizitatzaille edo eskatzaille gisa parte hartzen duen pertsona bat, aldez aurretik kanpoko aditu gisa lagundu bazuen prozedura horretako baldintza-agiriak edo oinarriak egiten.
- Pertsona bat lizitazio batera aurkezten da aldez aurretik parte izan den edo ziurtatu duen proiektu edo kontu bat ebaluatzeko edo ikuskatzeko, kasu horietan operadore ekonomikoak parte hartu baitu lizitazioaren xede zehatzean (kontratazio-prozeduretan bakarrik egin suerta daitezkeen interes profesionalen gatazka).

BFAk interes-gatazkek kudeatzeko prozedura prestatu du (**III. eranskina**), iruzurrezko eta ustelkeriazko jokabideei lotutako arriskua dakarten egoerak prebenitu, detektatu eta kudeatzeko. Prozedura horrek interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA) bete beharra ezartzen du zenbait kasutan (**IV. eranskina**) Era berean, interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoari buruzko urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan xedatutakoa betetzeko, BFAk analisi horretarako





prozedura prestatu du, eta jasota dago interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizaturako prozeduraren gidan (MINERVA) (**VII. eranskina**).

Gainera, baldin eta kontratazio-prozeduretarako edo dirulaguntzak emateko prozeduretarako deialdia 2023ko urtarrilaren 26tik aurrera argitaratu bazen eta ez bada interes-gatazka MINERVAREN bidez aztertu, analisi horretarako beste prozedura prestatu da, eta jasota dago interes-gatazken ex-post analisia egiteko gidan (**VIII. eranskina**). Gida horrek ezarritakoaren arabera, proiekturen batean kontraturik esleitu bada edo dirulaguntzarik eman bada MINERVAREN izapidea bete gabe, hau egin behar da:

- Ex-post analisia egin, ahalik eta lasterren.
- Txosten batean azaldu zergatik ez den izapidea egin.





9 EBren finantza-interesen arriskuak ebaluatzeko prozedura, kofinantzatutako azpiproiektuaren sail arduradun bakoitzak ezarri beharrekoa (eg. 2023 eta 2025)

2024/2509 (EB, Euratom) Erregelamenduaren «Estatu-kideekin partekatutako kudeaketa» izenburuko 63. artikuluan adierazitakoaren arabera, BFAk arriskuen kudeaketa egokia bermatzen duen esparru bat ezarri du. Testuinguru horretan, proiektuak gauzatzeko arriskuak aztertu eta ebaluatzeko metodologia espezifiko bat dago Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, Batzordearen «Guidance Note on fraud risk assessment for 2014- 2020» deritzon autoebaluazio-tresnan oinarritua.

Metodologia horren asmoa da, alde batetik, kudeaketa-prozesuetan izan daitezkeen arrisku espezifikoak identifikatzea, eta, bestetik, neurri eraginkorrak eta egokiak hautatzea, irregulartasun sistemikoak, iruzur-arriskuak, ustelkeria eta ikusitako interes-gatazkak arintzeko.

Proposatutako sistemaren helburua da neurri guztien eraginkortasuna baloratzea eta antolakundeak ezarritako helburu estrategikoen barruan izandako irregulartasun sistemikoen, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken arrisku-maila mugatzea. Horretarako, eskura jarritako baliabideak ahalik eta modu eraginkorrenean erabiliko dira, zuzendaritzak datu objektiboetan oinarritutako erabakiak hartu eta gainbegiratu ahal izateko.

Irregulartasun sistematikoen, iruzurraren eta ustelkeriaren arriskuen gaineko analisia eta ebaluazioa egiteko, Next azpiproiekturen baten ardura daukan sail bakoitzak, arduradun teknikoaren bitartez, «EBren finantza-interesen arrisku-matrizea» izeneko excel-dokumentua erabiliko du. Matrize hori dokumentuan bertan garatuta dauden jarraibideen arabera bete beharko da, kontuan hartuta arriskuak ebaluatzeko eta tratatzeko prozedura honetan deskribatutako faseak:





1. fasea: Arriskuaren sailkapena.

Lehenik eta behin, arriskuak bilatu eta deskribatu behar dira, erakundearen inguruabar espezifikoak erreparatuta (zer tresna juridiko sustatzen eta kudeatzen diren, edo nola dauden antolatuta barneko lan-prozesuak: giza baliabideak, ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketa, etab.).

Ondoren, SEEP gauzatzeko giltzarri diren arrisku-motak sailkatu behar dira (barnean hartuta irregulartasun sistemikoen, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken arriskuaren analisia). Horretarako, jarduera-arloak bereizi behar dira, kontuan hartuta mehatxuak ingurunetik edo kanpotik datozen, eta eragiketa- edo kudeaketa-arriskuak erreparatuta.

2. fasea: Hasierako arriskua ebaluatzea (berezko arriskua zehaztea).

Prozesu bakoitzari lotutako arriskuak identifikatu ondoren, ebaluazioa inpaktuaren eta probabilitatearen bidez egingo da: identifikatutako arriskua gauzatzearen ondorioak eta hori gertatzeko probabilitatea, hurrenez hurren.

Ebaluazioaren emaitzak kontuan hartzen ditu erakundearen arrisku-faktoreak (sortzaileak, indartzaileak eta betikotzaileak), eta, hala, arriskuren bat erakundearen gauzatuko dela pentsarazten duen edozein elementu, inguruabar edo eragin islatu behar du.

Arriskua gauzatzearen ondorioek zerikusia dute kalte posiblearen garrantziarekin eta magnitudearekin; izan ere, arriskua gertatzeko probabilitateak gerta kaltegarriak gertatzeko maiztasuna neurtzen du.

Bi kasuetan tresna kuantitatiboak konbinatzen dira, analisi kualitatiboko estrategiekin eta iritzi subjektiboekin batera.

3. fasea: Barne-kontrolako sistemak ebaluatzea (hondar-arriskua zenbatestea).

Berezko arrisku-maila zehaztu ondoren (inpaktua, arrisku-faktoreak eta arriskua gauzatzeko probabilitatea konbinatuta), dauden neurrien eraginkortasuna ebaluatuko da, barne-kontrolera egokitutako balorazioa lortzeko eta hondar-arriskua zenbatesteko.





Dauden kontrolak identifikatu eta baloratzeko, kontrol-ezaugarrien arabera (tipologiaren, gauzatze-metodoaren eta kontrol-maiztasunaren arabera) arintze-balioa ematen duen kalkulu-metodologia erabili da, eta, beraz, ahalmen aringarria haren ezaugarrien batezbestekoaren emaitza izango da.

Azkenik, barne-kontrolako sistemen ebaluazioari dagokionez, kontrolen eraginkortasun-maila baloratuko da, kontrol horiek behar bezala gauzatzeko ahalmena doitzeko.

4. fasea: Arriskua arintzeko ekintza-plana definitu eta ezartzea.

Hondar-arriskua onargarria ez bada, arriskua arintzeko ekintza-plana egingo da. Plan horretan, hauek zehaztuko dira: identifikatutako arriskua minimizatzeko egin beharreko jarduerak, eta, horietako bakoitzerako, aplikazio-egutegia, arduraduna eta hura gauzatzeko behar diren baliabideak.

Hondar-arriskuaren emaitza «onargarria» baino handiagoa bada, proposatu beharko dira funtsak emateko desbideratzeak konpontzeko berehalako ekintzak eta ezarri beharreko kontrolak, kontuan hartuta arriskuaren emaitza «garrantzitsua» edo «larria» izan den.

5. fasea: Azken arriskua ebaluatzea.

Ekintza-plan hau definitu ondoren, kuantifikatu beharko da zer-zolako eragina izango duen Arriskuaren Ekintza Planak proposatutako jarduerak ezartzeak, baloratu behar baita azken arrisku-maila onargarria den ala ez.

6. fasea: Arriskuen analisia berrikustea eta jarraipena egitea.

Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6.5 c) artikuluan jasotakoaren arabera, arriskuen analisia aldizka berrikusiko da, planifikatutako denbora-tarteetan (urtean behin edo bi urtean behin, irregulartasun sistemikoen, iruzurraren, interes-gatazken eta ustelkeriaren analisian identifikatutako arriskuaren arabera, eta, nolanahi ere, administrazio-plan honetan iruzur-kasu bat egiteagatik, edo testuinguru berri batean aldaketa garrantzitsuak gertatzen direnean), eta arriskuak aztertzeko jardun-protokoloaren beste ziklo bat hasiko da.





Arriskua Prebenitzeko Batzordeak berrikusi eta onartuko du egiten den arrisku-ebaluazio oro.





10 Iruzurraren kontrako zikloko neurriak: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena (eg. 2023, aza. 2024 eta urr. 2025)

Hemen daude definituta Bizkaiko Foru Aldundiak iruzurraren eta ustelkeriaren kontra abiaraziko dituen neurriak, eraginkorrak eta egokiak direla iritzita, detektatu diren arriskuak kontuan hartuta.

10.a PREBENTZIORAKO tresnak eta prozedurak

Irregularitasun sistemikoak, iruzurra, ustelkeria edo interes-gatazka kudeatzeko, prebentzio-lan handia egin behar da, irregularitasun horiek jatorrian geldiarazteko, eta ez soilik sektore publikoan, baita funts publikoak jasotzen dituzten entitate pribatuetan ere.

Prebentzioak eta disuasioak duten garrantziari dagokionez, irregularitasun sistemikoen, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken aukerak minimizatzeko, BFAk beti eman du aditzera erabaki irmoa hartu duela helburuak arriskuan jartzen dituzten edo aurrekontu publiko, nazional eta komunitarioen kontra egiten duten iruzurrezko jardunbide guztien kontra jarduteko. Horretarako, prebentzio-neurri hauek ezarri ditu:

A. Bizkaiko sektore publikoaren osotasunerako sistema indartzea

i. Iruzurraren kontrako adierazpen instituzionala

Iruzurraren kontrako adierazpen instituzionala egin da (I. eranskina). Langileentzako zabalkundea egin da bai intranetean bai BFAko langileei zuzendutako mezu elektronikoen bidez; izan ere, argitalpen horren berri eman zaie, eta argitalpenerako esteka jaso dute.

ii. Etika- eta jokabide-kodea

Etika-kodeak osotasun publikoaren esparruen parte dira, autoerregulazioko barne-tresna diren aldetik, eta iruzurraren eta ustelkeriaren arriskuak prebenitzen laguntzen dute zenbait arlotan, hala nola kontratazio publikoan, dirulaguntzetan, enplegu publikoan eta interes-gatazken agerpenean.





Etika-kodearen helburua da aurrera egitea administrazio publiko baterantz: behar diren legezko baliabideak eta baliabide materialak izateko; gaur egungo herritarrek dauzkaten bidezko nahiak betetzeko; kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzeko eta, ondorioz, gizarte demokratiko batean bete behar duen funtsezko zeregina betetzeko.

BFAk etika- eta jokabide-kode bi dauzka: bata, Europako funtsen kudeaketako arriskuen kudeaketaren arlokoa; bestea, BFAko langile guztiei aplikatu beharrekoa. Horretaz gain, jokabiderako informatika-kodea ere badauka.

Kode horietan dago adierazita zer jokabide eta jarduketa espero eta debekatzen dituen erakundeak eta zein diren erakundearen balioak eta printzipioak. Kode horiek BFAko langileei eta harekiko harremana duten hirugarrenei eman zaizkie, eta bizkaia.eus webgunean eta intranetean kontsultatu daitezke.

iii. Erakundean osotasunaren kultura hedatzea

BFAk langileei jakinarazi die zein diren BFaren osotasunaren sistema osatzen duten araudi edo jarduketa guztiak, argitalpenen berri eman baitie intranetean eta BFAko langileei bidalitako mezu elektronikoetan, eta argitalpenerako esteka ere bidali die.

Hala segituko du hauen zabalkundea egiteko:

- Iruzuraren kontrako adierazpen instituzionala, plan honetan onartua (**I. eranskina**)
- 5/2018 Foru Araua, azaroaren 21ekoa, Interes Gatazkei eta Bateraiezintasunei buruzkoa. Arau horrek gobernu ona bermatzeko printzipioak ezartzen ditu, eta printzipio horietara egokitu behar dira foru-kargu publikoen jokabideak eta jarduna.
- Jokabide-gida: 5/2018 Foru Arauan adierazitako printzipioak gauzatzeko «Foru Aldundian goi-kargudun izendatutako pertsonentzako jokabide-gidak» idatzi dira.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Etika eta Jokabide Kodea.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Etika eta Jokabide Kodea, Europako funtsen kudeaketan dauden arriskuak kudeatzeko.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 12ko 80/2011 Foru Dekretua, zeinaren bidez sortu eta arautzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiko eta Bizkaiko Lurralde



Historikoaren Aurrekontu Orokorretan sartutako gainerako entitateetako kideen eta goi-kargudunen jardueren eta ondasun eta interesen erregistroak eta aitorpenak.

- Osotasuna, kudeaketa-arriskuen prebentzioa eta iruzurraren kontrako neurriak sustatzeko plan hau.
- Foru-osotasunaren sistemaren gainean onartzen diren etorkizuneko arauak edo prozedurak.

iv. Interes-gatazka

Interes-gatazka posibleak prebenitu, detektatu eta kudeatzeko prozedura egin da (III., IV. eta VII. eranskinak). Hala, langileei aditzera eman nahi zaie zer modalitate dagoen interes-gatazketan, nola saihestu, zer arau dagoen indarrean gai horretan, eta zer prozedura bete behar den interes-gatazkarik antzemanaz gero.

B. Antolamenduko eta barne-kontrolako neurriak

Plan honen 6. apartatuan, «BFaren antolaketa eta gobernantza» izenburupean, foru-sektore publikoa antolatzeko modua dago adierazita adierazten da, barnean hartuta zeharkako sailen jardun-eremuak eta eginkizunak. Era berean, apartatu horretan BFaren 105/2021 Foru Dekretuaren bidez ezarritako gobernantza-egitura aipatzen da, zeina uztailaren 4ko 74/2024 Foru Dekretuaren bidez aldatu baitzen. Hor, Next Generation-EU funtsekin finantzatutako proiektuak direla eta, zenbait eginkizun esleitzen zaizkio, batetik, koordinazio-batzordeari –batzorde horren atazak, batez ere, sustapena, laguntza eta sostengu teknikoa dira–, eta, bestetik, Next Generation-EU funtsen sailarteko batzorde teknikoari –funtsak kudeatzeko lan teknikoak egingo baititu–.

EBren Finantza Erregelamenduaren 101.7 artikulua adierazitakoaren arabera, *estatu kideen erantzukizun nagusia izango da kontrolak eta auditoriak egitea eta oker gastatutako zenbatekoak berreskuratzea, arau sektorialetan ezarritakoaren arabera. Estatu kideek irregulartasunak antzematen badituzte eta beren kabuz zuzentzen badituzte, Batzordeak ez du egin beharko irregulartasun horien gaineko finantza-zuzenketarik.*

Iruzurra ez ezik, irregulartasun sistemikoak ere prebenitzeko eta detektatzeko, eta planaren printzipioetan (5. apartatua: «**Kudeaketa-printzipioak**») ezarritako banaketa funtzionalaren





printzipioa betetzeko, indartu egin da aldundiaren egungo barne-kontrolako sistema; horrenbestez, irregulartasun sistemikoen, iruzurraren eta ustelkeriaren arriskua kudeatzeko eginkizunak eta erantzukizunak honela banatu dira:

- **Arriskua prebenitzeko batzordea sortzea**

Plan honetan aurreikusitako neurriak behar bezala aplikatzen direla ziurtatzeko, eta Gobernu Kontseiluak 2022ko maiatzaren 17an onartutako planaren hasierako bertsioan ezarritakoari jarraikiz, Arriskua Prebenitzeko Batzordea sortu zen irailaren 27ko 114/2022 Foru Dekretuaren bidez, zeina, era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 1eko 10/2024 Foru Dekretuaren bidez aldatu baitzen. Foru-dekretu horrek funtzionamendua eta osaera arautzen ditu.

Arriskua Prebenitzeko Batzordea bost kide hauek osatuko dute:

- Funtsak Kudeatzeko zerbitzuburua. Bera izango da batzordeburua, eta, kanpoan nahiz gaixorik badago edo kargua hutsik badago, Funtsak Kudeatzeko atalburuak ordezkatu du.
- Auditoriako zerbitzuburua. Batzordearen eginkizun guztietan jardungo du, salbu eta batzorde horri jakinarazten zaion ustezko interes-gatazkari buruzko proposamenen bat egin behar badu eta, hala badagokio, nagusi hierarkikoari babes-txosten bat igorri. Zerbitzuburua kanpoan edo gaixorik badago edo kargua hutsik badago, Barne Auditoriarako atalburuak ordezkatu du.
- Laguntza eta Aholkularitzako zerbitzuburua. Kanpoan edo gaixorik badago edo kargua hutsik badago, Aurrekontu eta Kontabilitateko zerbitzuburuak ordezkatu du.
- Europari buruzko Orientazioa Bideratzeko zerbitzuburua. Kanpoan edo gaixorik badago edo kargua hutsik badago, Europari buruzko Orientazioa Bideratzeko atalburuak ordezkatu du.

Batzorde horrek sailen eta foru-entitate publikoen lankidetzak eskatu ahal izango du, berak aztertzen dituen gaiei buruzko informazioa jasotzeko.

Arriskuak Prebenitzeko Batzordeari eginkizun hauek dagozkio:





- Irregularitasun sistemikoen, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken arriskua ebaluatzea Bizkaiko Foru Aldundi osoan, **II. eranskinean** jasotako autoebaluazio-testaren bidez. Hasiera batean, bi urtean behin egingo da, eta, betiere, kasuren bat detektatu denean edo aldaketa esanguratsuak daudenean prozeduretan edo pertsonalean.
- Batasunaren finantza-interesen arrisku-ebaluazioa gainbegiratzea eta onartzea. Halako ebaluazioak EBren funtsekin finantzatutako azpiproiektuak kudeatzen dituzten sailek egingo dituzte.
- Jakinarazten zaizkion interes-gatazkekin zerikusia duten gaiei buruzko informazioa ematea. Horretarako, ustezko gatazkari eta, hala badagokio, hartu beharreko neurriei buruzko proposamena egingo du.
- Irregularitasun sistemikoak, interes-gatazkak, iruzurra eta ustelkeria prebenitu, antzeman, zuzendu eta jazartzeko behar diren agirien ereduak eta prozedurak eta horiekin lotutako jardueren dokumentazioa balioztatzea.
- Irregularitasun sistemikoak, interes-gatazkak, iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko, hautemateko, zuzentzeko eta jazartzeko prozedurak hobetzeko neurri zuzentzaileak proposatzea.
- Organismoan zerbitzuak ematen dituzten langileak planarekin lotutako gai guztiez jabetzen direla eta horri buruzko prestakuntza jasotzen dutela ziurtatzea.
- Ziurtatzea badela barne-kontrolerako sistema eraginkor bat ardurapeko esparruan.
- Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren erabilera sustatzeko jarraibideak egin eta onar daitezen sustatzea, baita datuak aztertzeko eta gurutatzeko beste modu batzuk ere.
- Urtean behin, planean aurreikusitako prozedura eta neurrien organo eta arduradunek plana behar bezala erabiltzen eta aplikatzen dutela egiaztatzea, baita planean sartzeko egokitzat jotzen diren hobekuntza-beharrak identifikatzea ere.
- Plana garatzeko prozedura eta dokumentuak nola prestatzen diren gainbegiratzea.





- Urtero egitea planean jasotako neurrien jarraipena, eta gauza bera egitea organo kudeatzaileak arriskuren bat detektatzen duen bakoitzean edo kontrol-organismoek egindako auditorien emaitzak jasotzen direnean.
- Egitateak aztertzea eta plana kontrolatzeko egituretan eta prozesuetan egin beharreko aldaketak zehaztea, baldin eta osotasunaren kontrako, iruzurrezko edo ustelkeriazko ekintzaren bat gauzatzen bada.

Era berean, plana gauzatzeko behar diren ekintzei dagokien beste edozein eginkizun ere.

Arriskuak Prebenitzeko Batzordea urtean behin bildu beharko da gutxienez, dagozkion gaiak aztertzeko. Ohiko bilerez gain, edozein unetan ezohiko bilerak ere egin ditzake, kideetako batek deialdia egiteko ardura duen pertsonari hala eskatzen badio.

- **Proiektuen ardura duten sailen prebentzio-eginkizunak**

Jarduera-arlo edo sail bakoitzeko arduradun nagusiek autoebaluazio-eginkizunak hartuko dituzte beren gain, irregulartasun sistemikoei, interes-gatazkei, iruzur-arriskuari eta ustelkeriari dagokienez. Hala, garatzen dituen administrazio-kudeaketako prozesuetan dauden irregulartasun sistemikoen, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken arriskuen ebaluazioan oinarrituta, dauden barne-kontrolen egokitasun-maila zehaztuko du arrisku horiei aurre egiteko, eta identifikatuko du zer eremutan egin behar diren kontrol osagarriak.

Gizarte Ekintza Sailaren kasu espezifikoan, Zerbitzu Orokorraren Zerbitzua indartu da, eta, horretarako, aldi baterako bi lanpostu gehituko dira Next Generation-EU programarako sortutako teknikari juridikoen kategorian.

- **Zeharkako sailen prebentzio-eginkizunak**

Prebentzio-neurri gisa, Ogasun eta Finantza Sailak egin behar dituen eginkizunak ere indartu dira, batzorde hauetako kidea baita: Arriskua Prebenitzeko Batzordea, koordinazio-batzordea, eta sailarteko batzorde teknikoak. Horretarako, zenbait lantalde espezifiko sortu dira, behin-behinean, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko Europako funtsen kargura





finantza daitezkeen proiektuak kudeatzeko eta gauzatzeko orduan. Honenbestez, behin-behineko lanpostu hauek sortu dira:

- I. Auditoria Zerbitzuan, lantalde bat sortu da, hauek osatuta: Auditoriako zerbitzuburua, eta Next Generation-EU Programarako berariaz sortutako Ekonomia-kontrolako teknikariaren kategoriako behin-behineko lanpostuko langilea.
- II. Funtsak Kudeatzeko Zerbitzuan, lantalde bat sortu da, hauek osatuta: zerbitzuburua, eta Next Generation-EU Programarako berariaz sortutako behin-behineko bi lanpostutako langileak, hau da, Funtsak Kudeatzeko Zerbitzuko teknikaria eta Antolaketako teknikaria.
- III. Europari buruzko Orientazioa Bideratzeko eta Bizkaia Erakargune Bihurtzeko Zerbitzuan, lantalde bat sortu da, hauek osatuta: zerbitzuburua, eta Next Generation-EU Programarako berariaz sortutako behin-behineko bi lanpostutako langileak, hau da, Europari buruzko Orientazioa Bideratzeko eta Bizkaia Erakargune Bihurtzeko Zerbitzuko teknikaria eta Fiskalizazioko teknikaria.

Hala, behin-behineko lanpostu berri horien bitartez, lortu nahi da eraginpeko proiektuak kudeatzen dituzten sailei laguntza ematea, dauzkaten barne-kontrolako sistemak indartu eta kontrola ditzaten eta plan honetan aurreikusitako neurriak ezar ditzaten. Auditoria Zerbitzuan aurreikusita dago finantza-kontrolako auditoriak egitea dirulaguntzen bitarteko justifikazioei buruz edo batera finantzatutako azpiproiektuen hitzarmenei buruz. Next Generation-EU funtsei dagokienez, Funtsak Kudeatzeko Zerbitzuak sailei lagunduko die azpiproiektuak ziurtatu aurreko egiaztapenak egiten.

- **Bitarteko organismoa**

Bizkaiko Foru Aldundia bitarteko organismotzat hartu da Euskal Autonomia Erkidegoko 2021-2027rako EGEF programa operatiboan. Horrek esan nahi du dagoeneko ikuskatuta eta inplementatuta dauzkatela kudeaketa eta kontrolako sistema batzuk. Sistema horiek, aldi berean, proiektuak kudeatzen dituzten sailalara eraman dira, dagokien zatian. Bitarteko organismoa den aldetik esleituta dauzkan eginkizunen artean dago arriskuaren





autoebaluazio-sistema bat aplikatzea eta iruzurraren konterako neurri eraginkorrak eta egokiak hartzea.

C. Arriskua ebaluatzea

Plan honen 9. apartatuan, BFAk EBren finantza-interesen arriskuen ebaluazioa egiteko gauzatuko duen prozedura sartu da, eta barnean hartu da irregulartasun sistemikoen, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken arriskua. Prozedura hori oinarritzakoa da iruzurra prebenitzeko neurria den aldetik.

D. Prestakuntza eta kontzientziazioa

BFAk plan honen esparruan iruzurra prebenitzeko garatzen dituen jardueren artean, organismoko kide guztiei zuzendutako prestakuntza eta kontzientziazioa daude, eta barnean hartzen ditu kontrolaren ardura duten hierarkia-maila guztiak, GUFÉ – Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko kideak, foru-organismo autonomoa baita, enpresen foru-sektore publikoko gainerako kideak, eta BFaren partaidetza daukaten sozietateetako kideak.

Neurri horren helburua da BFAko, GUFÉko, enpresen foru-sektore publikoko eta BFaren partaidetza daukaten sozietateetako kide guztiak kontzientziazioa eta gaitasunak eskuratzea irregulartasun sistemikoen, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken kontra borrokatzeko.

BFAko eta gainerako erakundeetako langileei aldizkako prestakuntza emango zaie, eta organismoak berak komunikazioen bidezko kontzientziazio-jarduerak ere egingo ditu.

Funtsak Kudeatzeko Zerbitzuak sustatuko ditu prestakuntza- eta kontzientziazio-ekintza horiek, zeinak bertako langileek emango baitituzte edo iruzurraren kontrako borrokari buruzko jakintzak zabaltzen dituen beste edozein organo edo erakundek.

Ematen den prestakuntza orok, kontzientziazio-ekintzak ere barnean direla, neurtzeko modukoa izan behar du. Prestakuntza betetze-ebidentzietan oinarrituko da, auditoria-pista egokia bermatzeko, eta BFaren prestakuntza-planean ziurtatua eta egiaztatua izateko eskatzen diren baldintzak beteko ditu.





10.b DETEKZIORAKO tresnak eta prozedurak

Aurreko puntuan deskribatutako prebentzio-tresnek edo -kontrolek ez dutenez bermatzen arriskuen aurrean babes osoa izatea, BFAk prebentziotik ihes egiten duten iruzurrezko portaerak garaiz detektatzeko sistemak sartu ditu plan honetan.

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko inbertsio-proiektuak gauzatzen dituzten pertsona guztiak daude detekzio-neurrien oinarrian.

Prestakuntza prebentzio-tresna gisa deskribatu da, eta, Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziz, gainera, iruzurra detektatzeko tresna ere bada, aldundiko langileek egindako prestakuntza aztertuz gero.

A. Salaketen barne-kanala

Planaren lehen bertsioa onartu aurretik, iruzurraren kontrako postontzi bat zegoen, non edonork salatu zitzakeen Bizkaiko Foru Aldundiak emandako laguntza edo ordainketak, baldin eta EGEF edo EGIF funtsen Europako kofinantzaketa jaso bazuten eta, salatzailearen ustez, iruzurrezko edo engainuzko jardunbidetzat hartzea bazegoen. Planaren lehen bertsioan xedatutakoa betetzeko, salaketa horren xedea zabaldu da Europako edozein kofinantzaketatar, hala nola Next Generation-EU funtsetara.

75/2023 Foru Dekretua indarrean sartuta (Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 6ko 75/2023 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundian arau-hausteen gaineko informazioa emateko eta informatzaileak babesteko barne-sistema sortu eta arautzen duena), salaketetarako barne-kanal bakar bat ezarri da, BIS – Barneko informazio-sistema izenpean, eta horren barruan txertatu da lehengo postontzia. Kanal berriak irismen handiagoa du, eta Arau-urratzei eta ustelkeriaren kontrako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteko otsailaren 20ko 2/2023 Legean ezarritako baldintza eta berme guztiak betetzen ditu (IBL).

BFAk inplementatutako kanalera esteka honetatik iritsi daiteke:

- Iruzurraren kontrako postontzia: <https://www.bizkaia.eus/eu/iruzurraren-aurkako-neurriak>
- Barneko informazio sistema (BIS): <https://berrieman.bizkaia.eus/eu/hasiera>





BFAk langile guztiei exijitzen zaie iruzur edo ustelkeriaren susmopean dauden edo interes-gatazkako egoera bat ekar dezaketen jokabide oro jakinaraztea, nahitaez.

Jakinarazpenean, egitateen garapenari buruzko xehetasunekin batera, salatutako egitateetan esku hartu duten pertsonak argi identifikatu behar dira.

Salaketa-kanalaren bidez emandako informazio eta datu guztiak konfidentzialtasun osoz tratatuko dira, Arau-urratzei eta ustelkeriaren kontrako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen arabera eta Arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzko maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoaren arabera.

Salaketen kanalean, azalpen batzuk daude, salaketa jarri nahi duen pertsonak postontzi horren segurtasuna uler dezan, eta konfiantza nahikoa izan dezan.

Ekainaren 6ko 75/2023 Foru Dekretuaren IV. tituluan, BFAren barruan gertatutako arau-hausteei buruzko informazioak kudeatzeko prozedura dago araututa. Arau-hauste horiek izapidetzea onartuko da, soilik, baldin eta zigor edo administrazioko arau-hauste astun edo oso astunak izan ahal badira. Planaren **V. eranskinean** BISaren ezaugarriak daude deskribatuta.

Adierazi behar da ezen, hargatik BFAko langileek egitate edo jokabide horien berri emateko duten betebeharra eragotzi gabe, salaketen kanala erabiltzeko duten aukeraz gain, beti izango dela posible horien berri ematea zuzenean nagusi hierarkikoari. Kasu horietan, informazioa jasotzen duen pertsonak BISera bidali beharko du, eta BISak hasiera emango dio kudeaketa- eta ikerketa-prozedurari 75/2023 Foru Dekretuan ezarritako eran. Nahiz eta komunikazioa ez bidali salaketen kanalaren bidez, kasu horietan ere bermatu behar da konfidentzialtasuna. Beraz, langileei gaiaren gaineko prestakuntza eman beharko zaie, eta adierazi konfidentzialtasuna urratzea arau-hauste oso astuna dela.

Salatzaileak eta salatuak babesteko otsailaren 20ko 2/2023 Legean xedatutakoaren arabera, aukera eman beharko da idatziz (posta arruntez edo horretarako prestatutako edozein bitarteko elektronikoren bidez) zein ahoz (telefonoz edo ahots-mezularitzako sistemaren bidez) komunikatzeko. Informatzaileak eskatuta, bilera presentzial batean ere komunika daiteke gehienez ere zazpi eguneko epean.





B. Salaketen kanpo-kanala

Salaketen barne-kanala da salatzeko bide nagusia, baina aurreikusita dago Informatzailea Babesteko Agintaritza Independentea, **A.A.I.** sortzea Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan. Agintaritza horretan, pertsona fisiko orok jo ahal izango du araudiaren edozein arau-hausteren edo ustelkeriaren zantzuen berri emateko, zuzenean edo BFAren salaketa-kanalaren bidez jakinarazi ondoren.

Barne-kanalean bezala, **Informatzailea Babesteko Agintaritza Independenteari** ere eman dakioke informazioa idatziz (posta arruntaren bidez edo horretarako prestatutako edozein bitarteko elektronikoren bidez) edo ahoz (telefonoz, ahots-mezularitzako sistemaren bidez edo aurrez aurre, ezarritako baldintzen arabera).

C. Bandera gorriak

Bandera gorriak edo alertak dira ahalezko irregulartasun sistemikoen, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken seinaleak, pistak edo zantzuak. Bandera gorria izateak ez du nahitaez esan nahi iruzurra dagoenik, baina adierazten du jarduera-eremu jakin batek arreta gehigarria behar duela ahalezko arriskua baztertzeko edo baieztatzeko.

BFAk zenbait adierazle edo bandera gorri ezarri ditu, eta kudeatzaileei banderon berri eman zaie, beren eginkizunak betetzean detekta ditzaten.

Adierazle horiek erabiliz gero, arriskuen ebaluazioaren bidez identifikatutako arrisku bakoitzari bandera gorri bat edo batzuk lotuko zaizkio, eta bandera gorri bat agertzea izango da susmoa dagoela zehazteko irizpide nagusietako bat, eta, beraz, haren jarraipena egin beharko da. Hartara, beharrezkotzat joz gero, kontrol gehigarriak ezarri beharko dira, irregulartasun sistemikoak, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazka gertatzeko arriskuak arintzeko.

BFAk adierazle edo bandera gorri batzuk dauzka erakundeari aplikatu dakiokeen arrisku bakoitzari esleituta. Edozelan ere, beharrezkotzat joz gero, are gehiago jar daiteke. Adierazle edo bandera gorri horiek kontsultatzeko, «Iruzur- eta ustelkeria-arriskuen matrizea» izeneko excel-dokumentuan.





Bandera gorrien katalogoa egin da (**VI. eranskina**) iruzurraren kontra borrokatzeko, eta definituta dago zer prozedura bete behar den bandera gorri horietako bat detektatuz gero (9. apartatua).

D. Datuen analisia eta gurutzaketa

BFaren irregulartasun sistemikoen, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken arriskuen analisiaren emaitzak hobetzeko, bultzatu nahi da datuak beste administrazio publiko batzuekin gurutzatzea, horri esker iruzur-arrisku handiko egoerak antzeman ahal izateko baita funtsak eman aurretik ere. Horretarako, planaren hasierako bertsioan adierazitakoa betetzeko, Arriskua Prebenitzeko Batzordea sortu eta arautzen duen Foru Dekretuak eginkizunen artean hau eman dio: sustatzea Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren erabilera sustatzeko jarraibideak egin eta onar daitezen, eremu nazionalako finantzaketa bikoitzari buruzko egiaztapenak egiteko, eta datuak aztertu eta gurutzatzeko beste eragiketa batzuk.

2022ko maiatzaren 2an, BFaren Gobernu Kontseiluaren erabaki bat argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Haren bidez, onartu da BFaren dirulaguntza eta laguntza publikoei buruzko informazioa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera bidali beharra dagoela. Era berean, beste ebazpen batean onartu da dirulaguntza-deialdiei alta emateko eta deialdiak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera bidaltzeko prozedura.

Bultzada emango zaio Europako Batzordearen tresnak eta datu-meatzaritzarako MINERVA aplikazioa erabiltzeari, HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikulutik 7.era bitartean ezarritakoa betetzeko; bestela, antzeko beste edozein aplikazio erabiltzeari, baldin eta datuak gurutzatzeko balio badu merkataritza-erregistroekin, organismo nazionalekin, administrazio-espedienteekin eta langileen espedienteekin, interes-gatazken egoera posibleak antzematearren. Horretarako, eranskin hauek sartu dira: **IV.d eranskina** (Interes-gatazkarik ez dagoela berresteko eredua) eta **VII. eranskina** (MINERVA – Interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizaturako prozeduraren gida).

Datuak gurutzatzeko, datu pertsonalak babesteko arauak kontuan hartu beharko dituzte entitate betearazleek.





10.c ZUZENTZEKO ETA JAZARTZEKO tresnak eta prozedurak

Inork iruzurren edo ustelkeriaren baten susmoa badu, bere susmoaren berri emango dio BISari, eta berak emango dio hasiera kudeaketa eta ikerketako prozedurari 75/2023 Foru Dekretuan ezarritako eran.

Interes-gatazkaren susmoa duten pertsonak berehala jakinarazi beharko diote inplikaturako pertsonaren nagusi hierarkikoari, antolakundearen barruko langilea bada; inplikaturako pertsona administratibotik kanpoko bada (kanpoko langileak, eskatzaileak, lizitatzatzaileak...), berriz, prozeduraren arduradunari jakinarazi beharko diote. Orobat, beti izango dute salaketan kanalera jotzeko aukera, eta kanalak igorri behar dio salatutako pertsonaren nagusi hierarkikoari. IGrik dagoen ala ez erabaki behar duen pertsonak eragiketaren arduradunari eskatuko dio berehala eten dezala prozedura, eta, erabaki bat hartu baino lehen, egoera alderatu beharko du inplikaturako pertsonarekin, partzialtasun-arriskua hobeto ebaluatzeko, bere eginkizunak betetz, eta salatutako egitateak ikertu beharko ditu, **III. eranskinean** aurreikusitako moduan.

Halaber, plan honek zenbait kontrol eta neurri jasotzen ditu, baldin eta zuzendu edo jarri behar badira azkenean irregulartasun sistemiko, iruzur, ustelkeria edo interes-gatazka gisa katalogatu diren ekintzak. Zehazki, neurri hauek onartu dira:

- i. Irregulartasun sistemikorik antzemanez gero, Arriskua Prebenitzeko Batzordeak neurri hauek proposatu ditu:
 - 1.- Eragiketan sartuta dauden eta/edo antzeko izaera ekonomikoa duten espediente guztiak berrikustea.
 - 2.- Finantzaketa komunitarioa kentzea detektaturako gorabehera identifikatuta daukaten espediente guztiei.
 - 3.- Unitate betearazleei jakinaraztea zer neurri hartu behar dituen detektaturako ahulezia konpontzeko, topaturako gorabeherak berriro gerta ez daitezen.
 - 4.- Barne-kontrolerako sistemak berrikustea, egiaztapenaren hasierako faseetan gorabehera horiek antzemateko mekanismo egokiak ezartzeko.





ii. Interes-gatazka dagoela egiaztatuz gero:

Planaren III. **eranskin**ean adierazitakoaren arabera, inplikaturako pertsonaren nagusi hierarkikoak jakinaren gainean jarriko du BISOA – **Barneko informazio-sistemaren organo arduraduna**, neurri egokiak har ditzan. Eranskin horretan, neurri zuzentzaile batzuk proposatu dira.

iii. Iruzurra edo ustelkeria dagoela egiaztatuz gero:

V. **eranskin**ean ezarritakoarekin bat etorriz, BISOak BFAko organo eskudunari helaraziko dizkio salaketa bera eta ikerketaren ondoriozko azken txostena, dagozkion neurri zuzentzaileak har ditzan.

Proposatutako neurri zuzentzaile osagarriak:

Iruzzurraren, ustelkeriaren edo interes-gatazken eragina ebaluatu beharko da, kasu puntuala edo sistemikoa den zehaztuta.

Era berean, detektatu kasu beraren eraginpean egon diren proiektu guztiak berrikusiko dira, eta, hala badagokio, eskatu beharko da finantzaketa komunitarioa kentzeko eskatuko zaie detektatutako gorabehera identifikatuta daukaten espediente guztiei.

Azkenik, BFAk, 2024ko Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan oinarrituta, lankidetzak aktibo eta leiala izango du agintaritzak eskudunekin, kanpo-kontrolako organoekin, fiskaltzarekin eta agintaritzak judizialekin, eta, hala gertatzen denean, Europako Batzordeak, OLAF – Iruzzurraren kontra Borrokatzeko Europako Bulegoak edo Europako Kontu Auzitegiak egiten dituzten jarduketetan. Arreta berezia jarriko da artxiboak leku seguru batean gordetzeko eta, langile-aldekatarik izanez gero, transferentzia bermatzeko.

Zehatzeko diziplina-ahala

BFAk zehatzeko ahala du, antijuridikotasunak finkatzea eragozteko, legezkotasunaren kontrako jarduerak zuzentzeko eta administrazio-irregulartasunen erantzuleei zehapenak ezartzeko, arau-haustekak diren ekintzak edo ez-egiteak gauzatzeagatik.

Plan hau eta huraosatzen duten politikak eta prozedurak nahitaez bete behar dituzte Bizkaiko Foru Aldundiko langile guztiek.





Horregatik, aipatutako dokumentu horiei loturiko ez-betetzeak hauen arabera zehatuko dira: BFaren barne-araudia, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, eta horrekin bat datorren araudia.

Iruzur, ustelkeria eta interes-gatazken kasuak zehatzeko hartu beharreko neurriak hemen daude araututa: Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren kontra zuzenbide penalaren bidez borrokatzeari buruzko HFP/1030/2021 Aginduaren III.C eranskinean eta PIF zuzentaraua deritzon 2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 3.1 artikuluan – *«Estatu-kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurra arau-hauste penala dela bermatzeko, iruzur horiek nahita egiten direnean»*–, eta **pertsona fisikoentzako zehapenei buruzko** 7. artikuluan.





11 Planaren publikotasuna

Planaren lehen bertsioaren eta ondorengo eguneratzeen argitalpenean bezala, eguneratze honetan ere beteko da Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 6. eta 7. artikuluetan jasotako publikotasun aktiboaren betebeharra.





12 Planaren jarraipena eta ebaluazioa (eg. 2023 eta aza. 2024)

Plan honen edukiari eragiten dion gorabehera ororen ondorioz (prozedura berriak sartzea, aurrekoak bertan behera uztea edo aldatzea, etab.), eguneratu egin beharko da. Hau da, gorabehera jasoko da; planari eguneratze horretako hilabetearen data jarriko zaio, eta haren erregistro historikoa gordeko da.

Planaren hasierako bertsioan proposatutakoa betetzeko, Arriskua Prebenitzeko Batzordea sortu eta arautzen duen Foru Dekretuaren arabera, batzorde horrek urtero egin beharko du hau:

- Egiaztatu behar du planean aurreikusitako prozedurak eta neurriak betearazteko ardura duten organoek eta arduradunek plana behar bezala erabiltzen eta aplikatzen dutela.
- Identifikatu behar du zer hobetu behar den eta hobekuntza horietatik zein diren egokiak planean sartzeko.

Era berean, planaren hasierako bertsioan proposatutakoa betetzeko, Arriskua Prebenitzeko Batzordeak gainbegiratu du, 2022tik gaur arte, nola garatu diren planaren prozedurak eta dokumentuak.

Urteko jarraipena egiteko, oinarritzat hartuko dira kofinantzatutako proiektuak kudeatzen dituzten unitateetako langileek eta goi-kargudunek inprimakien bidez emandako erantzunak, kontrol-neurri eta -mekanismoen aplikazio-mailari buruzkoak, hain zuzen. Jarraipen hori aurreko urtean izapidetutako espedienteen egiaztatze-zerrenden bidez egin daiteke.

Era berean, plan honen bidez proposatzen da planean sartutako neurrien jarraipena egitea, baldin eta, urteko aldizkakotasuna gorabehera, organo kudeatzaileak arriskuren bat detektatzen badu, edo kontrol-organoei egindako auditorien emaitzak jasotzen badira. Osotasunaren kontrako, iruzurrezko edo ustelkeriazko egintzaren bat gauzatzen bada, Arriskua Prebenitzeko Batzordeak egitateak aztertuko ditu, eta zehaztuko du zer aldaketa egin behar den kontrol-egituretan eta -prozesuetan.

Planaren jarraipena dela eta, proposatzen da urtero baloratzea zer-nolako beharra dagoen prozedurak eguneratzeko, arriskuak ebaluatzeko edo neurriak ezartzeko.





13 I. eranskina: Iruzurraren kontrako adierazpen instituzionala

Bizkaiko Foru Aldundia da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren entitate betearazlea, irailaren 29ko 1030/2021 Aginduan xedatutakoaren arabera. Agindu horren bidez, Suspertze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen da. Izan ere, bere eskumenen esparruan, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren sartutako Erreformen eta Inbertsioen Azpiproiektuak gauzatzea dagokio.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen du, eta honela dakar: estatu kideek Batasunaren finantza-interesak babesteko neurri egokiak aplikatu behar dituzte, eta zaindu behar dute funtsak erabiltzen direla hauen arabera: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatutako neurriak; Batasunaren eta nazioaren arteko gatazketan aplikatu beharreko zuzenbidea, eta, batez ere, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, antzeman eta zuzentzeko den guztia.

Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi nahi du erabateko konpromisoa hartzen duela arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko dauden estandar gorenak zaintzeko, eta erabat atxikitzen zaiela zintzotasun, objektibotasun eta zuzentasunaren printzipio zorrotzeneri, aldundiarekin harremanak dituzten eragile guztiek ikus dezaten edonolako iruzurraren eta ustelkeriaren kontra jarduten duela.

Bizkaiko Foru Aldundiko enplegatu publikoek konpromiso hori hartzen dute; izan ere, «interes orokorrak zaindu beharko dituzte Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa betez; halaber, printzipio hauen arabera ere jardun beharko dute: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua» (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/5015 Legegintzako Errege Dekretuaren 52. artikulua).





Zuzentasuna bermatzeko, kudeaketa-arriskuak prebenitzeko eta iruzurraren kontrako neurriak ezartzeko plan bat egin da, iruzurraren eta ustelkeriaren kontrako neurri eraginkorrak eta egokiak abian jartzeko, iruzur-arriskua kudeatzeko planteamendu proaktibo, egituratu eta espezifiko batean oinarrituta, bermatzearren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko jardueretan egin den gastuak ez duela interes-gatazkarik, iruzurrik eta ustelkeriarik. Abiapuntua izan da horretarako egin den iruzur-arriskuaren ebaluazioa. Horretaz gain, iruzur edo ustelkeria izan daitezkeen egoerak prebenitzeko, detektatzeko eta salatze prozedurak eta jarraipena egiteko prozedurak daude.

Politika horren helburua da pertsona orori iruzurrezko jarduera orotan atzera eragingo dion kultura sustatzea, prebentzioa eta detekzioa erraztea, eta horrelako egoerak kudeatzeko prozedura eraginkorrak garatzea.

Azken batean, BFaren politikan ez dago iruzurrarekiko eta ustelkeriarekiko tolerantzia txikienaren arrasto bat bera ere, eta kontrol-sistema sendoa ezarri du, zeina berariaz sortu baitu iruzur-egintzak prebenitu eta detektatzeko eta, ahal den neurrian, eta egintza horien eragina zuzentzeko, halakorik izanez gero.





14 II. eranskina: Interes-gatazkaren, iruzurraren eta ustelkeriaren prebentzioaren testa (eg. urr. 2025¹)

Galdera	Betetze-maila			
	4	3	2	1
1. Ba al dago «iruzurraren kontrako neurrien planik»? Hau da, entitate betearazleak edo entitate erabakitzaileak hau bermatu eta adierazi ahal izateko modukorik: dagokion jardun-eremuan, funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili dira, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko?	X			
2. Egia da egikaritze-maila guztietan dagoela «iruzurraren kontrako neurrien plana»?	X	X		
Prebentzioa				
3. Ba al dago adierazpen bat, mailarik altuenean, iruzurraren kontra borrokatzeko konpromisoa hartzeko?	X			
4. Egin al da autoebaluaziorik berariazko arriskuak, inpaktua eta probabilitatea identifikatzeko? Berrikusi al da aldizka?	X			
5. Zabaldu al da etika-koderik? Informatu al da opari-politikaz?	X	X		
6. Eman al da prestakuntzarik etika publikoa sustatzeko eta iruzurra detektatzen laguntzeko?		X	X	
7. Prestatu al da prozeduraren bat interes-gatazkei heltzeko?	X	-		
8. Bete al dute esku-hartzaile guztiek interes-gatazkarik ezaren adierazpena?	X			
Detekzioa				
9. Definitu al dira iruzur-adierazleak edo alerta-seinaleak (bandera gorriak)? Jarri al dira jakinaren gainean detektatzeko moduan dauden langileak?		X		
10. Erabiltzen al da datuen prospekzioa egiteko edo arriskuak puntuatzeko tresnarik?	X	X		
11. Ba al dago modurik edozein interesdunek salaketak jartzeko?	X			
12. Ba al dago salaketak aztertzeaz eta neurriak proposatzeaz arduratzen den unitaterik?	X			
Zuzenketa				
13. Ebaluatu al da iruzurraren intzidentzia? Kalifikatu al da sistemiko edo puntual gisa?	X			
14. Baztertu al dira iruzurraren eragina duten eta SEMak finantzatu edo finantzatu behar dituen proiektuak edo proiektu-zatiak?	X			
Jazarpena				
15. Jakinarazi al zaizkie egitateak eta hartutako neurriak entitate betearazleari, entitate erabakitzaileari edo agintaritza arduradunari, hala dagokionaren arabera?	X			
16. Salatu al da egitate zigorgarririk, hala dagokion guztietan, Europar Batasuneko edo nazioko agintaritza publikoetan edo fiskaltzan eta auzitegi eskudunetan?	X			
Puntu guztizko partziala.	52	9	0	0
Guztirako puntuak	61			
Gehieneko puntuak.	64			
Puntu erlatiboak (guztirako puntuak / gehieneko puntuak).	% 95,31			

Oharra: Gehieneko betetze-mailaren baliokidea 4a da; 1a, berriz, gutxienekoa



Betetze-mailaren garapena

AUTOEBALUAZIOA II.B.5 ERANSKINA. 1030_2021 MA (IKPren II. eranskina)	IKP	Puntuazioa	Guztirako puntuazioa	Betetze-maila	Iruzkina
Lehenengo autoebaluazioa	IKP onartzea 2022/05/17	35 puntu	64	54,69%	IKP onartzearekin batera lehenengo autoebaluazioa egin zen.
Bigarren autoebaluazioa	IKPren lehenengo eguneratzea 2023/12/12	51 puntu	64	79,69%	Bigarren autoebaluazioa planaren lehenengo eguneratzearekin batera egin zen. Hobekuntza nabaritu da; izan ere, betetze-mailari begira ia autoebaluazio-item guztiak heldu dira gorenera alderdi hauetan: IKP, iruzurraren kontrako borrokarako adierazpen instituzionala eta IGEA. IKPren bigarren eguneratzea 2024ko apirilaren 17an onartu zen, baina ez zen beste autoebaluaziorik egin aplikazio-eremu subjektiboari bakarrik eragin ziolako.
Hirugarren autoebaluazioa	IKPren hirugarren eguneratzea 2024/12/02	56 puntu	64	87,50%	Hirugarren autoebaluazioa IKPren hirugarren eguneratzearekin batera egin zen. Betetze-maila gorenera iritsi da arrisku-ebaluazioan, proiektu guztietan egiten delako eta aldizka berrikusten delako. Neurri zuzentzaileen eta jazarpen-neurrien betetze-maila ere gorena da, horretarako prozedura zehatzak daudelako IKPan bertan, eta xedatuta dagoelako neurriok gauzatzea gertatu ahala.
Laugarren autoebaluazioa	IKPren laugarren eguneratzea e. g.	61 puntu	64	95,31%	IKPren laugarren eguneratzean, laugarren autoebaluazioa onartuko da. Betetze-maila gorena lortu da, egiaztatu delako IKP dagoela gauzatze-maila guztietan. Halaber, betetze-maila gorenera iritsi da interes-gatazkaren tratamenduan, ex-post tratamendua sartu delako ex-ante analisia egin ez denerako. Azkenik, iruzurra detektatzeko orduan, betetze-maila gorenekoa da datuak aztertzeke edo arriskuak puntuatzeko tresnen erabilera.





15 III. eranskina: Ahalezko interes-gatazka tratatzeko prozedura (eg. aza. 2024 eta urr. 2025)

A. Zabalkundea

Prozedura honen helburua da ahalezko interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta kudeatzea, eta intranetean argitaratu da. Argitalpen horren berri eman zaie entitateko langile guztiei posta elektronikoz, hain zuzen ere, BFAko langileen artean zabaltzeko.

B. IGaren alderdiak arautzen dituzten arau-iturriak

- Bizkaiko Foru Aldundiaren Etika eta Jokabide Kodea, Europako funtsen kudeaketan dauden arriskuak kudeatzeko.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Etika eta Jokabide Kodea.
- Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea eta interes-gatazkak:

«64. artikulua. **Ustelkeriaren kontrako borroka eta interes-gatazken prebentzioa.**

1. Kontratazio-organoek neurri egokiak hartu beharko dituzte iruzurraren kontra, mesedekeriaren kontra eta ustelkeriaren kontra borrokatzeko, eta modu eraginkorrean detektatu eta konpondu beharko dituzte lizitazio-prozeduretan sor daitezkeen interes-gatazkak, **lehiaren distortsio oro saihesteko eta prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatzailerik guztientzat tratua berdina dela bermatzeko.**

2. Ondorio horietarako, interes-gatazkaren kontzeptuak hau jasoko du gutxienez ere: **kontratazio-organoarentzat lan egiten duten eta aldi berean lizitazio-prozeduran parte-hartze bat izan dezaketen edo haren emaitzan eragina izan dezaketen langileen edozein egoera, lizitazio-prozeduraren testuinguruan haien inpartzialtasuna edo independentzia itxura batean zalantzatan jar dezakeena interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala zuzenean edo zeharka izateagatik.**

Ustezko interes-gatazka baten berri duten pertsonak edo erakundeek berehala eman beharko diote hori aditzera kontratazio-organoari.

«71. artikulua. Kontratatzeko debekuak.

1. Honako egoera hauetako batean dauden pertsonak ezingo dute kontraturik egin lege honen 3. artikuluan aurreikusitako entitateekin, eta horrek 73. artikuluan ezarritako ondorioak ekarriko ditu:

(...).





g) Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzeko martxoaren 30eko 3/2015 Legean, autonomia-erkidegoetako arauetan edo Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aipatutako kasuren batean sartuta egotea pertsona fisikoa edo pertsona juridikoaren administratzaileak, edota Hauteskunde Araubide Orokorriari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargudun izatea, bertan ezarritako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren langileek eta goi-kargudunek edo administrazio horien zerbitzura diharduten hautetsiek pertsona juridiko baten kapitalean parte hartzen badute, aipatutako legerian zehaztutako moduan eta zenbatekoekin, pertsona juridiko hori ere debekuaren barruan sartuko da.

Debekuak berdin hartzen ditu, bi kasuetan, aurreko paragrafoetan aipatutako pertsonen ezkontideak, bizikidetza afektiboz horien antzeko lotura daukaten pertsonak, aurrekoak eta ondorengoak, bai eta bigarren mailako odol- edo ezkontza-ahaideak ere, baldin eta interes-gatazka sortu bada kontratazio-organoaren titularrarekin edo kontratatzeko ahalmena delegatua duten organoetako titularrekin edo kontratazio-organoaren titularraren ordezkoeekin.

(...).

«336. artikulua. Kontratuak adjudikatzeko prozedurei buruzko berariazko txostenak.

1. Kontratazio-organoek idatzizko txosten bat prestatuko dute erregulazio harmonizatuko obra-, hornidura- edo zerbitzu-kontratu edo esparru-akordio bakoitzari buruz, bai eta eskuratzeko sistema dinamiko bat ezartzen duten bakoitzean ere, eta, hartan, honako hauek jasoko dira, gutxienez ere:

(...).

i) Kasua bada, detektaturiko interes-gatazkek eta horiei dagokienez harturiko neurriak.

(...).

- EBren Finantza Erregelamendua:

Finantza Erregelamenduaren 61. artikulua arabera:

«1. Titulu honen 4. kapituluaren arabera finantza-eragileek eta beste pertsona batzuek, edozein mailatako agintari nazionalak barne, aurrekontua zuzenean, zeharka eta modu partekatuan gauzatzen parte hartzen badute kudeaketan, gai hori prestatzeko egintzak, auditoria edo kontrola barne, ez dute inolako neurririk hartuko beren interesen eta Batasunaren interesen arteko gatazka ekar dezakeenik. Era berean, neurri egokiak hartuko dituzte beren ardurapean dauden funtzioetan interes-gatazka saihesteko eta interes-gatazka gisa objektiboki har daitezkeen egoerei aurre egiteko.

2. Agintaritza nazional bateko langile kideren bat barnean hartzen duen interes-gatazka baten arriskua dagoenean, pertsona horrek nagusi hierarkikoari igorriko dio gaia. Estatutua aplikatzen zaien langileen kasuan, pertsona horrek dagokion agindu-emaila eskuordeari bidaliko dio gaia. Dagokion hierarkiako nagusiak edo agindu-emaila





eskuordeak idatziz baieztatuko du interes-gatazka dagoela. Uste bada interes-gatazka dagoela, izendapenak egiteko ahalmena duen agintariak edo hala dagokion agintaritzak nazionalak zainduko du kasuan kasuko pertsonak gai horretako jardura oro bertan behera uzten duela. Agindu-emaile eskuordeak edo hala dagokion agintari nazionalak zainduko du aplikatzekoa den zuzenbidearen arabera neurri gehigarriren bat hartzen dela. **Hala egingo da baita agintaritzak naziozaleko langileren bat inplikaturik dagoenean ere, interes-gatazkaren arloko zuzenbide nazionalarekin bat etorriz.**

3. 1. apartatuaren ondorioetarako, interes-gatazka egongo da finantza-eragileen eta 1. apartatuko gainerako pertsonen eginkizunak modu inpartzialean eta objektiboan betetzea arriskuan jartzen denean familia arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidetasun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoiengatik».

Finantza Erregelamenduaren **170.** artikulua araberaz:

«1. Kontratuak esleitzeko, kontuan hartuko dira esleipen-irizpideak, baina, edonola ere, kontratazio-organoak egiaztatu behar du, besteak beste, baldintza hauek betetzen direla:

a) (...)

b) (...)

c) hautagaiak edo lizitatuak kontratazio-irispidea izatea, eta kontratazio-agirietan agertzen diren hautaketa-irizpideak betetzea, barnean hartuta interes-gatazka profesionalen falta.

(...)

- Europako Batzordearen 2021/C 121/01 komunikazioa.

Esteka honetan orientabideak daude interes-gatazkako egoerak saihesteko eta kudeatzeko, Finantza Erregelamenduaren arabera: [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52021XC0409\(01\)&from=ES](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52021XC0409(01)&from=ES).

Nori eragiten dion adierazten duen 3.2.2 apartatuaren arabera:

«(...)

Finantza-eragileak eta beste pertsona batzuk (EB edo nazio-mailan), besteak beste agintari nazionalak, 2018ko FEaren 61. artikuluan xedatutakoaren mende daude, EBren kudeaketaren araubidean, aurrekontuaren betearazpenean parte hartzen badute, edozein mailatan, zuzenean, zeharka eta modu partekatuan (barnean hartuta prestaketa-egintzak, auditoriak edo kontrolak) (...).





Hala ere, esan behar da ezen, 2018ko FEaren 61. artikulua 1. apartatuarekin bat etorritik, «parte-hartze» horretan hauek sartzen direla: EBko funtsen erabilera planifikatu, erabaki, kudeatu, ikuskatu eta kontrolatzeko prozesuaren edozein etapa eta prestaketa-ekintza guztiak. Hortaz, kontzeptu honetan erabakiak hartzeko prozesuan eragina izan dezakeen pertsona oro sartzen da, bereziki nazioko, eskualdeko eta tokiko agintariak, agintaritza horietako langileak edo kideak eta Gobernuak kideak, EBren aurrekontua gauzatzean aipatutako edozein etapaz arduratzen diren neurrian.

Horrenbestez, 2018ko FEaren 61. artikulua EBren aurrekontua betearaztearekin zerikusia duten erabakiak hartzeko prozesuaren edozein arduradunek hartutako edozein neurriari aplikatzen zaio, edo aurrekontua zuzentzeko edo hartan eragiteko gaitasuna duenak hartutakoari. Hala ere, parte-hartze horrek nahiko esanguratsua izan behar du: pertsonak ahalmena izan behar du diskrezio- edo kontrol-maila jakin bat egiteko aurrekontuaren betearazpenean (hau da, jarduteko ahalmena izan behar du edo jarduten dutenei jarraibideak emateko ahalmena, edo jarduten dutenei aholkuak edo irizpenak emateko eginkizuna).

(...).

- Gida, egiturako ekintzen esparruan kontratazio publikoko prozeduretako interes-gatazkak antzemateari buruzkoa:

Kudeaketaren arduradunentzako gida praktikoa, estatu kideetako aditu talde batek egindakoa, Iruzuraren kontra Borrokatzeko Europako Bulegoan iruzurraren prebentziorako dagoen D2 unitateak koordinatuta.

https://www.ciencia.gob.es/dam/jcr:08ca4cd0-6c26-4591-afb6-29f8edd46670/Comision-Europea-guia_conflictos.pdf

- HFP/55/2023 Agindua, urtarilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzen duten prozeduretan interes-gatazka izateko arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa.
- HFP/55/2023 Agindua aplikatzeko gida praktikoa (HFP/55/2023 Agindua, urtarilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzen duten prozeduretan interes-gatazka izateko arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa).





C. Interes-gatazka tratatzeko prozeduraren faseak:

Beharrezkoa izango da interes-gatazken inguruko prebentzioari, detekzioari eta kudeaketari heltzea.

C.1 IGaren prebentzio-fasea:

Beharrezkoa izango da ikastaroak ematea, eta Administrazioako langile guztiei **zabaltzea** bai IGaren prozedura, bai etika- eta jokabide-kodea, bai osotasuna, kudeaketa-arriskuen prebentzioa eta iruzurraren kontrako neurriak sustatzeko plana. Hala, ahalegina egingo da BFaren osotasun-sistemaren garrantziaz eta ondorioez informatu eta kontzientziatzeko. **Planaren edukiari buruzko lineako ikastaroak ematen dira**, eta horien barruan dago IGaren prozedurari buruzkoa, Next Generation-EU funtsekin finantzatutako azpiproiektuen kudeaketan esku hartzen duten langileei zuzendua.

Interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA) betetzea.

Kontuan hartuta Europar IGa jorratzen duen araudia, hau da, Finantza Erregelamenduaren 61. eta **170.** artikulua eta 3.2.2 apartatua (Interes-gatazkarik ez izateko eta, egonez gero, halakoak kudeatzeko orientabideak, Finantza Erregelamenduaren araberakoak – 2021/C 121/01), interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA) hauei eskatuko zaie:

- SEEP betearazteko prozeduretan erabakiak hartzeko ahalmena duten esku-hartzaile guztiei. Edonola ere, hauek izango dira:

- i. Lizitazio/oinarri edo deialdietako dokumentuak idazten dituzten langileak
- ii. Eskabideak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzen dituzten adituak
- iii. Eskabideak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzen dituzten batzordekideak
- iv. Dirulaguntza-deialdian izendatutako instrukzio-organoa
- v. Ohi baino baxuagoak diren eskaintzen balorazio-txostenak egiten dituzten teknikariak
- vi. Kontratazio-organoa / dirulaguntza emateko eskumena duen organoa (gobernu-kontseilua, diputatuak edo, hala badagokio, zuzendariak, eskumena eskuordetuta badute)





vii. Eta prozedurako kide anitzeko gainerako organoak

Kide anitzeko organoak badira, adierazpen hori bileraren hasieran sinatuko dute bertan esku hartzen duten guztiek, eta aktan jasoko da.

- lizitazio- edo dirulaguntza-prozedurako eskatzaileei eta lizitatzailaiei:

Finantza Erregelamenduaren arabera (2021/C121/01) interes-gatazkarik ez izateko eta, egonez gero, halakoak kudeatzeko orientabideetan hau dago xedatuta: «2018ko FEaren 61. artikulua ez zaie aplikatuko, oro har, hautagaiei, lizitatzailaiei, eskatzaileei, onuradunei (horien artean, kudeaketa partekatuko finantza-tresnen testuinguruko azken hartzaileei) eta kontratistei, eta ez litzatekeela haiekin erabili beharko (...). Hala ere, kasu batzuetan, 2018ko FEaren 61. artikulua aplikatzekoa da (...).».

Orientabide horiek oinarritzat hartuta, onuradunak, aldi berean, organo betearazlea edo botere esleitzaila bada, arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko konpromisoa hartu beharko du, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta detektatzeko behar diren neurriak hartuta, eta, hala badagokio, ikusitako ez-betetzeak dagozkien agintariei jakinarazita. Hori dela eta, eskaera/eskaintza egiten duen unean, IGEA sinatu beharko du, eta, haren bidez, berak eta, hala badagokio, azpikontratistek beteko dutelako konpromisoa hartuko du.

Halaber, lizitatzailaiek/eskatzaileek adierazi beharko dute aldez aurretik ez dutela parte hartu nahi dituzten kontratuen/dirulaguntzen pleguak/oinarriak/deialdiak egiteko prozesuan, eta lizitatzailaiek ez duela interes-gatazka profesionalik, hau da, lizitatu nahi duen uneko kontratazio-prozeduran ez dela ebaluatzen edo ikuskatzen inolako proiekturik/konturik aldez aurretiko bere partaidetza edo ziurtapena izan duenik. **Izan ere, hala bada, eragile ekonomikoak dagoeneko parte hartu du lizitazioaren xede xehatzean.**

- Kontrolatzaileak:

IGaren arriskua prozedura prestatzeko egintzetan dago batez ere; baina, hala eta guztiz ere, IGrako prebentzio-neurriak indartzeko asmoz, kontrolatzaileek konpromisoa hartuko dute IG potentziala ageri den espedienteen gaineko kontrol-eginkizunik ez egiteko. Hau da, nagusi





hierarkikoari jakinarazi behar diote, hark beste pertsona baten esku utz dezan kontrol-eginkizun hori.

IV. eranskinean, interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA) egiteko bost eredu daude:

- ✓ IGEA bat, lizitazioaren/oinarrien eta/edo deialdien dokumentuak idazten dituzten langileentzat, kontratatu beharreko prestazioaren xede den proiektua sinatzen dutenentzat, kontratatu beharreko prestazioaren xede den proiektua onartzen dutenentzat, proiektua gainbegiratzeko txostena sinatzen dutenentzat, A fasean esku hartzen duten fiskalizazioko langileentzat, eskaerak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzen dituzten adituentzat, prozedurako kide anitzeko organoentzat (**IV.a eranskina**).
- ✓ IGEA bat, lizitazio-/dirulaguntza-prozeduraren lizitatzailentzat eta eskatzailentzat, salbu eta lizitatzailerik ez bada horiek administrazio publikoak badira (**IV.b eranskina**).
- ✓ IGEA bat, erabakimena duten esku-hartzaileentzat, dela eskaintzak baloratzeko faseetan, dela kontratazio-prozedurako esleipen-proposamenetan edo esleipenean, dela dirulaguntza-prozedurako eskabideak baloratzeko faseetan eta emakida-ebazpenean (**IV.c eranskina**).
- ✓ IGEA bat, MINERVArekin bidez detektatutako erabakitzailearentzat, baldin eta IGrik ez duela alegatu badu eta IGrik ezaren frogabide argia badago. Eredua: interes-gatazkarik ez dagoela berrestekoa (**IV.d eranskina**).
- ✓ IGEA bat, kontroleko langileentzat (Fiskalizazio Zerbitzua eta Auditoria Zerbitzua), kontrolatzen dituzten espedienteetako inpartzialtasuna bermatzeko (**IV.e eranskina**).

Prozeduretako esku-hartzaileen interes-gatazkarik ezaren adierazpen-dokumentuak –dela sinatutakoak, dela kide anitzeko organoen bileretan adierazitakoak eta aktetan jasotakoak– kontratazio-espedienteetan edo laguntzak emateko espedienteetan sartu beharko dira, auditoria-pista egoki bati eusteko.





C.2. IGa detektatzeko eta kudeatzeko fasea:

Baliteke prebentzio-neurriak hartzea nahikoa ez izatea, eta, beraz, erabaki behar da interes-gatazka zelan detektatu. Ondorioz, neurri hauek ezarri dira ahalezko IGei heltzeko:

- Prozeduraren batean, ahalezko interes-gatazkaren berri dakiten pertsonak berehala jakinarazi beharko diote inplikaturako pertsonaren nagusi hierarkikoari, antolakundearen barruko langilea bada; inplikaturako pertsona administratibotik kanpoko bada (kanpoko langileak, eskatzaileak, lizitatzatzaileak...), berriz, prozeduraren arduradunari jakinarazi beharko diote.

Jakinarazi baldin bada laguntzak esleitzeko/emateko prozedurako parte-hartzaileak ahalegindu direla, erabakiak hartzeko prozesuan, behar ez bezala eragiten edo isilpeko informazioa lortzen, eta hala egiaztatzen duen dokumentazioa badago, dokumentazio hori emango da.

Inplikaturako pertsonak uste badu IG batean erortzeko arriskua dagoela, nagusi hierarkikoari igorriko dio gaia.

Interes-gatazkaren arriskuaren detekzioa bandera gorriaren bidez zehaztuta egongo da MINERVA aplikatiboan, halaxe zehazten baitu HFP/55/2023 Aginduak, dirulaguntzak emateko edo kontratuak esleitzeko prozeduretarako, 2023ko urtarrilaren 26tik aurrera argitaratutako deialdietan.

- IGaren arriskua jakinarazi zaion pertsonak (prozeduraren arduraduna edo nagusi hierarkikoa, kasuan kasu) idatziz berretsi beharko du interes-gatazkarik dagoen ala ez.

IGrik dagoen ala ez erabakitzeko, erabakiaren arduradunak bere irizpide ona erabili behar du, eta kontu handiz aztertu ea egitate egokien berri dakien norbaitek pentsa dezakeen antolakundearen osotasuna arriskuan dagoela konpondu gabeko interes-gatazka baten ondorioz.

Egoera arretaz aztertu ahal izateko, eragiketaren arduradunari eskatuko dio prozedura berehala eteteko; etendura horren berri emango du elektronikoki sinatutako diligentzia baten bidez, eta, erabakia hartu aurretik, inplikaturako pertsonarekin alderatuko du egoera, horrela ebaluatu ahal izango baitu hobeto eginkizunak betetzeko partzialtasun-arriskua.





Kontratua bada, eragiketaren arduradunak arriskuaren eta etenduraren berri emango dio Kontratazio Zerbitzuari.

- Eraginpeko erabakitzaileari ahalezko IGa jakinarazi eta bi egun balioduneko epean, gehienez, eraginpeko erabakitzaileak aukera hauek ditu:

- Prozeduran jarraitzetik abstenitzea, edo
- IGrik ez duela azaltzeko alegazioak idatziz egitea.

- Gehienez ere bi egun balioduneko epean, aurreko alegazio-epea amaitzen denetik aurrera, eraginpeko pertsonaren nagusi hierarkikoak hau egingo du, kontuan hartuta, besteak beste, alegazioak eta detektatutako arriskuen deskribapenari buruz eska dezakeen informazio gehigarria:

- **IGa dagoelako frogabide argia badago, eraginpeko erabakitzaileari aginduko dio prozeduran abstenitzeko, eta haren ordezkioak IGEA sinatu beharko du.**

- Frogabide argirik ez badago, egoeraren berri emango zaio Arriskua Prebenitzeko Batzordeari (aurrerantzean, APB), fondosnext@bizkaia.eus postontziaren bidez, azter dezan eta ondorioen txostena eman diezaion, gehienez ere bi egun balioduneko epean. Salbuespenez, epe hori beste bi egun baliodun luzatuko da, baldin eta Arriskua Prebenitzeko Batzordeak uste badu txostena eskatu behar diola EAKN/IGA Eren aholkularitzan espezializatutako unitateari.

- APBren txostena jaso eta bi egun balioduneko epean gehienez, nagusi hierarkikoak hau egin beharko du:

- **IGa dagoelako frogabide argia badago, eraginpeko erabakitzaileari aginduko dio prozeduran abstenitzeko,** eta haren ordezkioak IGEA sinatu beharko du.

- IGaren arriskurik ez dagoelako frogabide argia badago, eraginpeko erabakitzaileari berrespenerako IGEA eskatuko dio –osotasun-plan honen IV.d eranskina–, eta prozeduran jarraituko du.





- Ez badago frogabide argirik lortu, ez IGrik ezerako, ez IGa baieztatzeko, eraginpeko erabakitzaileari aginduko dio prozeduran abstenitzeko, eta haren ordezkioak IGEA sinatu beharko du.

Gogorazarazpena: Eragiketaren arduradunak, auditoriarik egin ahal izateko, egindako jarduketa guztiak kargatuko ditu CoFFEEEn, eta proiektuak eta azpiproiektuak kudeatzen dituzten organoek eskuragarri izango dituzte bertan.

- Erabakia hartzeko arduradunak idatziz baieztatzen badu IG bat dagoela, BISOA – Barneko informazio-sistemaren organo arduradunari jakinaraziko dio. BISOAk erabakiko du zer prozedura bete behar den IGaren izaeraren eta prozeduraren fasearen arabera.

Interes-gatazkak aldatu egiten dira denboraren joanean. Beraz, gerta liteke, prozedura baten hasieran, erabakitzeko ahalmena duen funtzionarioak interes-gatazkarik ez izatea, ez benetakoa, ez itxurazkoa, ez potentziala. Hala ere, prozesuan zehar, inguruabarrak aldatu egiten dira, eta gerta liteke bere familiako kideren bat lizitatzailer batek edo dirulaguntzaren eskatzaile batek kontratatzea. Gainera, pertsona batek informazio berria lor dezake prozeduran zehar (adibidez, eskaintza batean azpikontratista gisa proposatutako eragile ekonomikoei buruz), edo inguruabarrak alda daitezke (adibidez, ezartzen bada prozeduraren hasieran ez zegoen harreman juridiko bat edo egitatezko harreman bat).

Kasu horietan, pertsonak berehala adierazi beharko dio nagusi hierarkikoari edo prozeduraren arduradunari interes-gatazka itxurazkoa, potentziala edo erreal dela. Inplikaturako pertsona geroagoko prozeduretatik baztertuko da benetako IGa berresten bada, eta, hala behar bada eta posible bada, parte hartu duen prozeduraren faseak errepikatu beharko dira.

Egitateak dokumentatu behar dira, eta egoeraren berri emango zaio Arriskua Prebenitzeko Batzordeari eta, hala badagokio, BISOari.

Era berean, gerora SEMaren auditoria-agintaritza eskudunek auditoria egin ahal izateko, CoFFEE aplikazioan alta emango zaio alderdi hauei lotutako dokumentazioari: interes-gatazkarik ez dagoela arrazoitzen duen alegazioa; abstentzioaren inguruabarra; MINERVAk emandako informazio gehigarria; Arriskua Prebenitzeko Batzordearen txostena, eta erabakia hartzeko arduradunak hartutako erabakia.





Hala badagokio, egitateen eta hartutako neurrien berri emango zaio entitate erabakitzaileari, edo jarduketak haren gomendio utzi dituen entitate betearazleari.

Fluxu-diagrama, interes-gatazka kudeatzeko prozeduraren detekzio-eta kudeaketa fasekoa.

Esku-hartzaileak:		IGaren berri dakien pertsona
		Ahalezko IGaren komunikazio-hartzailea
		Nagusi hierarkikoa
		Eraginpeko erabakitzailea
		Arriskua Prebenitzeko Batzordea
		EAKN/IGAeko unitate espezializatua
		Eraginpeko erabakitzailearen ordezkoa







16 IV. eranskina: Ereduak: interes-gatazkarik ezaren adierazpenak (eg. 2023 eta urr. 2025)

16.a IV.a – IGEAren eredua: HFP/1030/2021 Agindua

Eredua: interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA)	
Espedientea	
Kontratua/Dirulaguntza	
Izen-abizenak	
IFZ	
Kargua	

Goiko erreferentziako prozeduraren inpartzialtasuna bermatzeko, behean sinatzen duen pertsonak, prozedura horretan erabakitzeke ahalmena duen parte-hartzailea den aldetik, hau **ADIERAZTEN DU**:

LEHENENGOA. Badakiela hauen berri:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren **irailaren 23ko 2024/2509** (EB, Euratom) Erregelamenduan, hau da, EBren Finantza Erregelamenduan, 61.3 artikuluan, «interes-gatazka» izenburupean, hau dago ezarrita: «interes-gatazka egongo da funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean arrazoi familiar edo afektiboengatik, kidetasun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».

2. Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua, «Ustelkeriaren kontrako borroka eta interes-gatazken prebentzioa» izenburupean, helburutzat du lehiaren distortsio oro saihestea, eta bermatzea prozedura gardena dela eta tratua berdina dela hautagai eta lizitatzailerik guztientzat.

3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea» izenburupean) ezartzen du prozeduran esku hartzetik abstenituko direla «Administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean», zehazki, egoera hauetako batean:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai





eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.

c) Aurreko apartatuan aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.

e) Gaiaren zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan».

BIGARRENA. Ez dagoela EBren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan aipatzen direnetatik interes-gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, eta ez duela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan jasotako abstentzio-kausarik batere, emakida-prozedurari eragin diezaiokeenik.

HIRUGARRENA. Konpromisoa hartzen duela luzamendurik gabe jakinarazteko kontratazio-organoari, ebaluazio-batzordeari edo hierarkikoki gorago dagoenari edo prozeduraren ardura duen organoari egoera hori eragiten duen edo eragin dezakeen edozein interes-gatazka edo abstentzio-kausa.

LAUGARRENA. Badakit ezen, interes-gatazkarik ezaren adierazpena faltsua dela frogatuz gero, horrek berekin ekarriko dituela aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen ondorio diziplinarioak/administratiboak/judizialak.

IRAKURRIA ETA ONARTUA

Data eta sinadura, izen osoa eta NANA (*)

(*) NANA ez da beharrezkoa izango sinadura elektronikoa erabiliz gero.





16.b IV.b – IGEAren eredua: lizitazio-/dirulaguntza-prozeduretako lizitatzaille/eskatzaileentzat

Eredua: interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA), lizitazio-/dirulaguntza-prozedurako lizitatzaille/eskatzaileentzat.

Espedientea	
Kontratua/Dirulaguntza	

..... jaun/andreak (NAN zk.:),
..... entitateko sailburu, delegatu/kudeatzaile/ordezkarria den aldetik (IFZ: ;
egoitza fiskala:), goian
aipatutako kontratazio-prozeduran lizitatzaille den heinean, edo eskatzaile izanik goian aipaturiko
dirulaguntza-prozeduran, zeina SEEPtik datozen baliabideekin finantzatuko baita,
..... izeneko osagaian definituriko
helburuak lortzeko behar diren jarduketak garatzeko, **KONPROMISOA** hartzen du arau juridiko, etiko eta
moralak betetzeko, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitu eta antzemateko behar diren neurriak
hartzeko, eta, hala badagokio, hautemandako ez-betetzeak agintariei jakinarazteko.

Era berean, **ADIERAZTEN DU** ez duela aurretiaz parte hartu goian aipatutako
kontratuaren/dirulaguntzaren plegu/oinarri/deialdiak prestatzen, eta, lizitatzaille/**eskatzailea** den
aldetik, ez duela interes-gatazka profesionalik, hau da, ez diharduela lizitatzen berak aurretiaz parte
hartu/ziurtatu dituen proiektu/kontuak ebaluatu/ikuskatzeko helburua duen ezein kontratazio-
edo dirulaguntza-prozedura.

IRAKURRIA ETA ONARTUA

Data eta sinadura, izen osoa eta NANA (*)

(*) NANA ez da beharrezkoa izango sinadura elektronikoa erabiliz gero





16.c IV.c – Aurretiko IGEAren eredua: HFP/55/2023 Agindua

Eredua: interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA)	
Espedientea	
Kontratua/Dirulaguntza	
Izen-abizenak	
IFZ	
Kargua	

Goian aipatutako dirulaguntza-prozeduran inpartzialtasuna bermatzeko, behean sinatzen duenak, espedientea prestatu eta izapidetzeko prozesuko parte-hartzailea denez, hau **ADIERAZTEN DU**:

LEHENENGOA. Badakiela hauen berri:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren irailaren 23ko 2024/2509 (EB, Euratom) Erregelamenduan (EBren Finantza Erregelamendua), 61.3 artikuluan («Interes-gatazkak» izenburupean), hau dago ezarrita: «interes-gatazka egongo da funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean arrazoi familiar edo afektiboengatik, kidetasun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».
- Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua, «Ustelkeriaren kontrako borroka eta interes-gatazken prebentzioa» izenburupean, helburutzat du lehiaren distortsio oro saihestea, eta bermatzea prozedura gardena dela eta tratua berdina dela hautagai eta lizitatzaille guztientzat.
- Estatuaren 2023rako Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan, hau dago ezarrita: «Interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatua aplikatuko zaie entitate erabakitzaileen, betearazleen eta instrumentalen zerbitzura dauden enplegatu publikoei eta gainerako langileei, baldin eta banaka edo kide anitzeko organoetako kide gisa parte hartzen badute kontratuak esleitzeko edo dirulaguntzak emateko prozedura horietan».
- Aipatutako ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuan, hau dago ezarrita:
 - «Tresna informatikoaren bidez aztertuko dira aurreko apartatuan aipatzen diren pertsonen eta prozedura bakoitzeko parte-hartzaileen artean interes-gatazka sor dezakeen interes pertsonal edo ekonomikoa eragin dezaketen familia-harremanak edo sozietate-loturak, zuzenak edo zeharkakoak».
 - «Harremanak edo loturak identifikatzeko, tresna horrek, besteak beste, otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d).iii) artikuluan aipatzen diren pertsona juridikoen titulartasun errealarari buruzko datuak izango ditu, bai Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datu-baseetan daudenak, bai notarioen eta erregistratzaileen elkargoekin sinatutako hitzarmenen bidez lortutakoak».





5. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea» izenburupean) ezartzen du prozeduran esku hartzetik abstenituko direla «Administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean», zehazki, egoera hauetako batean:

- a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
- b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.
- c) Aurreko apartatuan aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
- d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.
- e) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan».

BIGARRENA. Adierazpen hau sinatu den unean, eta bere esku dagoen informazioa kontuan hartuta, ez dago interes-gatazkatzat jo daitekeen edo dirulaguntzak emateko edo lizitatzeko prozeduran eragina izan dezakeen egoerako batean ere, ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren laugarren apartatuan aurreikusitakoaren arabera. Era berean, ez dago EBren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan adierazitako interes-gatazkatzat jo daitekeen eta emakida-prozedurari eragin diezaiokeen ezein egoeratan, eta ez dago parte ez hartzeko arrazoirik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluen arabera.

HIRUGARRENA. Konpromisoa hartzen du luzamendurik gabe jakinarazteko kontratazio-organoari, ebaluazio-batzordeari edo/eta nagusi hierarkikoari edo prozeduraren ardura duen organoari egoera horri eragiten dion edo eragin diezaiokeen edozein interes-gatazka edo abstentzio-kausa.

LAUGARRENA. Badakit ezen, interes-gatazkarik ezaren adierazpena faltsua dela frogatuz gero, horrek berekin ekarriko dituela aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen ondorio diziplinarioak/administratiboak/judizialak.

IRAKURRIA ETA ONARTUA

Data eta sinadura, izen osoa eta NANA.





16.d IV.d – Interes-gatazkarik ez dagoela berresteko eredua

Espedientea	
Kontratua/Dirulaguntza	
Izen-abizenak	
IFZ	
Kargua	

Berriro diot ez dagoela prozeduran nire jardun objektiboa arriskuan jar dezakeen interes-gatazkarik eragin dezakeen egoerarik, eta hala diot MINERVA tresna informatikoaren bidez interes-gatazka egoteko arriskua aztertu ondoren, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan ezarritako baldintzetan, zeina baita Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarria aplikatuz emana) gauzatzen duten prozeduretan interes-gatazkek sortzeko arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa, eta bandera gorri bat detektatu ondoren (bandera gorria deskribatuta eta eskatzaileen zerrenda emanda, non bandera detektatu baita).

Data eta sinadura, izen osoa eta NANA.





16.e IV.e – IGEAren eredua: kontroleko langileentzat (fiskalizazioa, auditoria)

Next-EU funtsekin finantzaturako espedienteetan inpartzialtasuna bermatzeko, (izena/abizena/lanpostua).....(a)(e)k (Aurrekontuen eta Kontrol Ekonomikoaren Zuzendariorde, Finantza, Aurrekontu eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusia), NextGenerationEU funtsekin finantzaturako espedienteak izapidetzeko prozedurako partaide gisa, hau adierazten:

Lehenengoa. Badakiela hauen berri:

1. 2022ko maiatzaren 17an, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak onetsi du Europar Batasunak kofinantzatutako proiektuetan osotasuna, kudeaketa-arriskuen prebentzioa eta iruzurraren kontrako neurriak sustatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren plana (2022ko ekainaren 6ko BAO, 107. zk.).
2. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren **irailaren 23ko 2024/2509** (EB, Euratom) Erregelamenduan, hau da, EBren Finantza Erregelamenduan, 61.3 artikuluan, «interes-gatazka» izenburupean, hau dago ezarrita: «interes-gatazka egongo da funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean arrazoi familiar edo afektiboengatik, kidetasun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».
3. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua, «Ustelkeriaren kontrako borroka eta interes-gatazken prebentzioa» izenburupean, helburutzat du lehiaren distorsio oro saihestea, eta bermatzea prozedura gardena dela eta tratua berdina dela hautagai eta lizitatzailerentzat.
4. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea» izenburupean) ezartzen du prozeduran esku hartzetik abstenituko direla «Administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean», zehazki, egoera hauetako batean:
 - a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
 - b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai





eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.

c) Aurreko apartatuan aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.

e) Gaiaren zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan».

Bigarrena. Ez dagoela EBren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan aipatzen diren estatik interes-gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, eta ez duela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan jasotako abstentzio-kausarik batere, lizitazio- edo emakida-prozedurari eragin diezaiokeenik.

Hirugarrena. Konprometitzen dela bere nagusi hierarkikoari lehenbailehen jakinaraztera halako egoera dakarren edo ekar lezakeen edozein interes-gatazka edo abstentzio-kausa.

Laugarrena. Badakiela ezen, interes-gatazkarik ezaren adierazpen bat faltsua dela frogatuz gero, horrek berekin ekarriko dituela aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen ondorio diziplinarioak/administratiboak/judizialak.

Data eta sinadura, izen osoa eta NANA.





17 V. eranskina: Salaketen barne-kanala kudeatu eta ikertzeko prozedura (eg. 2023 eta urr. 2025)

75/2023 Foru Dekretua indarrean sartuta (Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 6ko 75/2023 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundian arau-hausteen gaineko informazioa emateko eta informatzaileak babesteko barne-sistema sortu eta arautzen duena), salaketetarako barne-kanal bakar bat ezarri da, IBS – Informaziorako barne-sistema izenpean, eta horren barruan txertatu da lehengo postontzia. Kanal berriak irismen handiagoa du, eta Arau-urratzei eta ustelkeriaren kontrako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteko otsailaren 20ko 2/2023 Legean ezarritako baldintza eta berme guztiak betetzen ditu (IBL).

BFAk implementatutako kanalera esteka honetatik iritsi daiteke:

Iruzurraren kontrako postontzia: <https://www.bizkaia.eus/eu/iruzurraren-aurkako-neurriak>

Barneko informazio-sistema: <https://berrieman.bizkaia.eus/eu/hasiera>

Salaketaren edukia

Komunikatzaileak ustez iruzurrezkoak diren jarduketei buruzko informazioa eman beharko du, informazio hau barnean hartuta:

- Egitateak ahalik eta modu zehatzenean eta xehatuenean deskribatu behar dira eta, ahal izanez gero, hauek identifikatu behar dira: egitateetan parte hartu duten pertsonak; ustezko irregulartasunak edo iruzurrak ukitutako negozioak, deialdiak, tresnak edo espedienteak; egitateak gertatu ziren benetako edo gutxi gorabeherako data; ukitutako funtsa edo finantza-tresna; laguntzak kudeatu dituen organoa edo entitatea; eta, hala badagokio, informazioa bidali zaien beste organo eta entitateak.
- Komunikatutako egitateak egiaztatzea eta egitateak direla-eta egokiak diren jarduketak egitea errazten duen dokumentazioa edo edozein froga-elementu aurkeztu behar da.





Ustez iruzurrekoak diren jarduketak jasotzea

Kudeaketa-sistema bat dago, jasotzen diren komunikazio guztiak erregistratzeko eta jarraipena egiteko. Sistema hori datu-base segurua da eta irispide murriztua dauka, hau da, BISOA – Barneko informazio-sistemaren organo arduraduna baino ezin da sartu.

Jasotzen diren komunikazio guztiak erregistratuko dira, bakoitzari bere kodea emanez, eta kode horrek modu unibokoan identifikatuko ditu komunikazioa, haren dokumentazioa eta berari loturiko artxiboak.

Honela egin daitezke komunikazioak:

- Idatziz, bitarteko elektronikoen bidez.
- Ahoz. Horretarako, bitarteko elektroniko bidez, informatzaileak hitzordua eska dezake aurrez aurreko bilera egiteko. Bilera horretan, informatzaileak berak azalduko ditu egitateak, eta, hala badagokio, frogarako agiriak edo bestelako elementuak entregatuko ditu.

Kasu guztietan, informatzaileak aukeran izango du bere burua identifikatzea edo modu anonimoan jardutea.

Onartzeko izapidea

Komunikazioa jaso ondoren, deskribatutako egitateak aztertuko dira zehaztearren nola bideratu behar den komunikazioa, eta, hala badagokio, egokitze jotzen dituen ikerketak egingo dira, hau da, behar beste informazio eskatuko da, onartze-izapidea emaitza izan dezan. Emaitza hori hauetako bat izan daiteke:

1. Komunikazioa izapidetzerantz onartzea; ondorioz, espediente eta ikerketa-jarduketak hastea.
2. Ez onartzea aurreikusitako arrazoiren batengatik.
3. Onartzea eta berehala igortzea Ministerio Fiskalari, delitu-zantzu argiak hautemanenez gero; eta, hala badagokio, Europako Fiskaltzari.
4. Ez onartzea eta igortzea eskumena duen entitate edo agintaritzaren independenteari, baldin eta egitateok beharturik dagoen beste entitate bati buruzko irregulartasunen berri ematen badute.





Informatzeko epeak

Komunikaziogileari jaso-agiria emango zaio komunikazioa jaso eta gehienez ere 7 egun naturaleko epean, 2019/1937 EB Zuzentaraua eta otsailaren 20ko 2/2023 Legea betetzeko. Gainera, komunikazioa bera jaso eta gehienez ere 3 hilabeteko epean kudeatu beharko da, **Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin** (DPBEDBLO) eta otsailaren 20ko 2/2023 Legearekin **(IBL)** bat etorritz.

Bestalde, ikertuari 30 eguneko epean jakinaraziko zaio, salbu eta uste bada informazio hori atzeratu behar dela ikerketa ez zapuzteko eta frogak gordetzeko, suntsitu edo aldatu ez daitezen. Idatziz adierazi beharko da zergatik atzeratu den ikertuari informazioa emateko betebeharra.

Jarduteko ebazpena eta erabakia

Instrukzioa edo ikerketa egin ondoren, BISOAk ebazpen-txostena egingo du, eta hor adieraziko du, besteak beste, zein den azken erabakia hauen egokitasunari buruz:

- i. Espedientea artxibatzea, batetik, informazioa delako prozedura honen aplikazio-eremu materialetik kanpoko edo, bestetik, ondorioztatu delako ez onartzeko aurreikusitako arrazoietakoren bat dagoela prozeduran.
- ii. Europako Fiskaltzari berehala bidaltzea, baldin eta egitate horiek delitu izan daitezkeelako zantzurik badago, Europar Batasunaren finantza-interesetan eraginik badute, eta ezin izan badira detektatu eta igorri prozesuaren aurreko faseetan. Halakoetan, baloratuko da lehenago eraginpeko pertsonari entzunaldia eskaintzea.
- iii. Txostena eskumena duen organoari helaraztea, baloratu eta dagokion zehapen-prozedura has dezan.

Datuen babesa

Informazioa kudeatzeko prozeduran jasotzen diren datu pertsonalek, hau da, informatzailearen, eraginpeko pertsonen eta hirugarrenen datu pertsonalek konfidentzialtasunaren bermearekin tratatuko dira, eta zorrotz beteko dira datu pertsonalak eta





informazioaren segurtasuna babesteko araudiak xedatzen dituen legeko eskakizunak eta betebeharrak.

Datu pertsonalen tratamenduan, hauek guztiek xedatutakoa hartu behar da aintzat: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, **zeinak pertsona fisikoen babesa arautzen baitu datu pertsonalen tratamenduari eta datuon zirkulazio askeari dagokienez, eta indarrik gabe uzten baitu 95/46/EE Zuzentaraua (DBEO – Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra)**; Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (DBEDBLO); Arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzko maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoa; Segurtasunaren Eskema Nazionala (SEN) arautzen duen maiatzaren **3ko 311/2022 Errege Dekretuaren xedapenak**, eta **Arau-urratzeei eta ustelkeriaren kontrako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko otsailaren 20ko 2/2030 Legearen** VI. titulua **(IBL)**.

Jasotako informazioei eta barneko ikerketei buruzko datu pertsonalak beharrezkoa eta proportzioskoa den denboran baino ez dira gordeko, IBLren xedapenak betetzeko.

Datu pertsonalak gorde ahal izango dira gertakariei buruzko ikerketa hastea bidezkoa dela erabakitzeko ezinbesteko denboraz bakarrik. Nolanahi ere, komunikazioa jaso eta hiru hilabeteko epean ez bada ikerketa-jarduerarik hasi, ezabatu egin beharko dira datuok, non eta helburua ez den sistemaren funtzionamenduaren berri jasota uztea. Egoera konplexuetan, epea luzatu behar bada, gehienez, beste hiru hilabete gehitu daitezke.





18 VI. eranskina: Bandera gorriak iruzurraren kontrako borrokan (eg. 2023 eta urr. 2025)

Bandera gorriak iruzurraren kontrako borrokan

Ondoren, bandera gorri batzuk daude definituta iruzurraren eta ustelkeriaren kontrako ahalezko alerta-adierazle gisa; planaren 9. apartatuan aipatutako arrisku-matrizean jasotakoekin bat datoz, eta tresna juridiko hauen arabera daude multzokatuta:

I. Kontratazioa

G1	PROZEDURA MANIPULATZEA, LEHIA MUGATZEKO
1	Preskripzio tekniko edo administratiboen agiriak edo pleguak lizitatzailaren alde idatzi dira
2	Pleguek lehenagoko antzeko prozeduretan onartutakoak baino preskripzio murriztaileagoak dituzte
3	Eskaintza bakarra edo proposamen-kopuru ezohikoa aurkeztu da, kontratazio-prozeduraren arabera lizitaziorako aukera emanda
4	Erosketak justifikaziorik gabe bereizi dira, adibidez, lan-indarren eta materialen kontratuak bereizita, biak lizitazio irekiaren atalaseen azpitik
5	Erosketa sekuentzialak daude lizitazioen publikotasun-betebeharraren atalaseen azpitik
6	Kontratua bi prozeduratan edo gehiagotan dago zatituta, eta prozedura horietan esleipendun bera dago. Hala, ez da erabili zenbateko osoaren arabera legokiokeen prozedura, prozedura horrek lehiako eta publikotasuneko berme handiagoak eskatzen baititu
7	Kontratazio-prozedura hutsik deklaratu da, eta berriro egin da deialdia, nahiz eta eskaintza onargarriak jaso ziren, pleguetan agertzen diren irizpideen arabera
8	Kontratazio-prozedurari buruzko dokumentazioan ez dago informazio- eta publikotasun-neurririk, edo ez dago eperik eskaintzak jasotzeko
9	Beste eskaintzaile batzuen erreklamazioak jaso dira
G2	ESKAINZETAKO KOLUSIO-PRAKTIKAK
1	Baliteke lizitatzailerek akordioak izatea elkarrekiko harremana duten edo elkarri lotuta dauden enpresekin, edo «hornitzaile mamu»en bidez.
2	Lizitazioaren emaitzak berekin dakar kontratua eskaintza handiegi bati esleitzea, erreparatzen bazaie aurreikusitako kostuei, prezio publikoen zerrendei, industriaren antzeko obra edo zerbitzuei edo merkatuko erreferentzia-prezioei.
3	Baliteke lizitatzailerek akordioak izatea kontratazio-prozeduran eskaintako prezioetan
4	Baliteke lizitatzailerek akordioak izatea merkatua banatzeko
5	Esleipendunak lizitatzaille izan ziren beste pertsona batzuk azpikontratatu ditu





G3	INTERES-GATAZKAK
1	Enpleguak ezohiko portaera du, lizitazio-prozedurari buruzko informazioa lortu nahi baitu prozeduraren ardura izan gabe
2	Kontratazio-organoko enplegatu bat lizitazioan parte hartu duen enpresa bateko langilea izan da aipatutako organismo esleitzailleko lanpostuan hasi aurretik
3	Familia-lotura dago kontratazio-organoko enplegatu baten eta enpresa lizitatzaillean erabakimena duen edo eragina duen pertsona baten artean
4	Lizitatzaille beraren aldeko esleipenak errepikatu dira
5	Etengabe onartu dira prezio altuak edo kalitate eskaseko lanak dituzten eskaintzak
6	Kontratazio-organoko kideek ez dituzte betetzen organismoaren etika-kodean ezarritako prozedurak (ez da aurkeztu IGEArik, edo osatu gabe dago)
7	Kontratazioaz arduratzen den enplegatuak uko egin dio erosketekin zerikusirik ez duen lanpostu baterako igoerari
8	Zantzuak daude kontratazio-organoko kide bat kontraprestazio bidegabeak jasotzen ote dabilen kontratazio-prozedurarekin lotutako mesedeen truke
9	Kontratazioaz arduratzen den enplegatu baten eta zerbitzu edo produktuen hornitzaile baten arteko sozializazioa dago
10	Kontratazio-organoko kideek ezohiko jokabideak dituzte
11	Ez da egin interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatua (MINERVA) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduretan, eta beharrezkoa da urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan xedatutakoa betetzeko
G4	AURKEZTUTAKO ESKAINTZEN BALORAZIO TEKNIKO EDO EKONOMIKOAREN MANIPULAZIOA
1	Esleipen-irizpideak ez daude behar bezain zehaztuta edo ez daude pleguetan jasota
2	Ausarkeriazko baja onartu da, lizitatzailleak behar bezala justifikatu gabe
3	Kontratazio-prozedura kontrolatzeko prozedurarik ez dago edo prozedura desegokiak daude
4	Eskaintzei, jaso ondoren, aldaketak egin zaizkielako zantzuak daude
5	Zalantzazko akats edo arrazoiengatik baztertutako eskaintzak daude
6	Gutxienez eskatu diren baino eskaintza gutxiago jaso dira, eta, hala ere, prozedurak aurrera egin du, hutsik deklaratu gabe Edo, bestela, prozedura hutsik deklaratu da, eta berriro egin da deialdia, nahiz eta eskaintza onargarriak jaso, pleguetan agertzen diren irizpideen arabera
7	Lizitatzailleen kexak
G5	KONTRATUA FORMALIZATZEKO IRREGULARTASUNAK
1	Formalizatutako kontratuak esleipenaren baldintzak aldatu ditu
2	Esleipenduna eta kontratu-sinatzaila ez datoz bat
3	Justifikatu gabeko atzerapenak daude kontratazio-organismoaren eta esleipendunaren arteko kontratua sinatzeko



4	Ez dago kontraturik
G6	PRESTAZIOAN BETEBEHARRAK EZ BETETZEA EDO IRREGULARTASUNAK EGOTEA ESLEIPENDUNAREN ONERAKO
1	Kontratuan ezarritako baino baldintza okerragoetako prestazioa
2	Elkarrekikotasunik ez dago kontratuan jasotako prestazioetan
3	Prestazioa aldatu da, ageriko zentzuzko arrazoirik gabe
G7	DOKUMENTU-FALTSUTASUNA
1	Eskaintzak hautatzeko prozesuan lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa faltsua da
2	Kostuen erreklamazioak edo fakturazioa manipulatu dira, kargu okerrak, faltsuak, gehiegizkoak edo bikoiztuak sartzeko
G8	KONTRATAZIOKO USTELKERIA
1	Eroskeria-eskaintzak, komisio-eskaerak edo beste onura ilegítimo batzuk onartu edo eskatu dira, esleipenak <i>de facto</i> egitearen truke
2	Erosketa-eskaintzak, komisio-eskaerak edo beste onura ilegítimo batzuk onartu edo eskatu dira, beharrianaren definizioari edo kontratazioaren prestaketari eragitearen truke
3	Erosketa-eskaintzak, komisio-eskaerak edo beste onura ilegítimo batzuk onartu edo eskatu dira, informazio pribilegiatuaren truke
4	Eroskeria-eskaintzak, komisio-eskaerak edo beste onura ilegítimo batzuk onartu edo eskatu dira, eskaintza bat prozeduratik kanpo uzteko edo onartzeko erabakiari eragitearen truke
5	Eroskeria-eskaintzak, komisio-eskaerak edo beste onura ilegítimo batzuk onartu edo eskatu dira, kontratazioa nola egin den ondo ez gainbegiratzearen truke
G9	INFORMATZEKO ETA KOMUNIKATZEKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEA
1	Ez dira bete informazioa emateko eta laguntza komunikatzeko betebeharrak
G10	AUDITORIA-PISTA GALTZEA
1	Kontratazio-espeditentean dagoen dokumentazioa ez da nahikoa auditoria-pista bermatzeko





II. Dirulaguntzak

G11	LEHIA MUGATZEA
1	Organismoak ez ditu behar bezala zabaldu oinarri arautzaileak edo deialdia
2	Deialdian, organismoak ez du argi zehaztu zer eskakizun bete behar duten laguntzen edo dirulaguntzen onuradunek
3	Ez dira bete oinarri arautzaileetan edo deialdian eskabideak aurkezteko ezarritako epeak
4	Baremoen arabera emandako dirulaguntzak izanik, ez dira argitaratu baremook aldizkari ofizialetan
5	Hornitzaileekin negoziatu behar izanik, laguntzen onuradunak edo hartzaileak ez du bete lehia bermatzeko betebeharra. Ez dira bete Dirulaguntzen Foru Arauaren 27.7 eta 29.3 artikulua
G12	ESKATZAILEAK HAUTATZEKO TRATU DISKRIMINATZAILEA
1	Onuradunak hautatzeko, ez dira bete objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak
G13	EBALUAZIO-BATZORDEAREN INTERES-GATAZKAK
1	Nahita eragin zaie onuradunen ebaluazioari eta hautaketari
2	Ez da egin interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatu (MINERVA) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikitzen duten prozeduretan, eta beharrezkoa da urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan xedatutakoa betetzeko
G14	ESTATUAREN LAGUNTZA-ARAU BIDEA EZ BETETZEA
1	Finantzatutako eragiketak estatu-laguntzak dira, eta ez da bete Europako araudiak horretarako ezarritako informazio- eta jakinarazpen-prozedura
G15	DIRULAGUNTZAREN XEDEA DESBIDERATZEA
1	Onuradunak ez ditu funtsak erabili dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritako helbururako
2	Oinarri arautzaileek edo deialdiak ez dute jaso «kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa» bete behar dela
3	Oinarri arautzaileek edo deialdiak ez dute jaso SEEPek etiketatze berde eta digitalerako esleitutako koefizientea bete behar dela
G16	GEHIGARRITASUN-PRINTZPIOA EZ BETETZEA
1	Eragiketen baterako finantzaketa gehiegizkoa da
2	Gastu bera kofinantzatzen duten kofinantzatzaile batzuk daude
3	Ez dago hirugarrenek egindako ekarpenen euskarri den dokumentaziorik (hitzarmenak, dohaintzak, bestelako diru-ekarpenak, etab.)
4	Ez dago hirugarrenek emandako finantzaketaren xedeari buruzko euskarri-dokumentaziorik, ez eta finantzaketa banatzeko irizpideei buruzkorik ere
5	Onuradunak ez dauka eragiketarako diru-sarreraren eta gastuen kontrolik
6	Onuradunak ez dauka proiektuari esleitutako mugarrien edo helburuen kontrolik





G17	DOKUMENTU-FALTSUTASUNA
1	Eskatzaileek dokumentu faltsuak aurkeztu dituzte hautaketa-prozesuan hautatuak izateko Faltsutasun hori hauei buruzkoa da: sinatutako adierazpenak, finantza-informazioa, konpromisoak, etab., ebaluazio-batzordearen akatsa eragin baitezakete
2	Gastuak justifikatzeko dokumentu-euskarria manipulatu da
G18	INFORMAZIO- ETA PUBLIKOTASUN-ARLOAN, ARAUDI NAZIONALAK ETA EUROPAR BATASUNAK EZARRITAKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEA
1	Ez dira bete informatzeko eta komunikatzeko betebeharrak
G19	AUDITORIA-PISTA GALTZEA
1	Organismoak ez du eragiketari buruzko dokumentazio zuzenik egin, auditoria-pista bermatzen duenik.
2	Deialdiak ez du zehatz-mehatz ezarri nola dokumentatu behar diren eragiketaren ondoriozko gastuak
3	Deialdian ez dira argi eta garbi definitu zein diren diruz laguntzeko moduko gastuak (hautagarriak)
4	Deialdiak ez du zehatz-mehatz ezarri zer metodo aplikatu behar den kostuak kalkulatzeko
G20	DIRULAGUNTZETAKO USTELKERIA
1	Eroskeria-eskaintzak, komisio-eskaerak edo beste onura ilegítimo batzuk onartu edo eskatu dituzte eskabideak ebaluatzeko batzordeko kideek eta esleipen-ebazpenetako parte-hartzaileek, esleipenak <i>de facto</i> egitearen truke
2	Erosketa-eskaintzak, komisio-eskaerak edo beste onura ilegítimo batzuk onartu edo eskatu dira, nola egikaritu den ondo ez gainbegiratzearen truke





III. Baliabide propioak / transferentziak

G21	MANDATUAREN ZENBATEKOA NAHITA OKER ESLEITZEA
1	Organo kudeatzaileak nahita ezarri ditu tarifa altuak merkatuko prezioen aldean (ordutegi-tarifa desegokiak, etab.). (Ez da aplikatzen transferentzietan)
2	Aldaketak egiteko, ez da eskatu Gobernu Kontseiluaren alde aurretiko baimen-erabakia, eta hala behar da mandatuaren zenbatekoaren ehuneko 20 gainditzeko bada. (Ez da aplikatzen transferentzietan)
G22	KOSTUAK NAHITA OKER ESLEITZEA
1	Mandatu edo transferentzia hartzen duen entitateak oker esleitu ditu langile-gastuak EBko proiektuen eta beste finantzabide batzuen artean
2	Mandatu edo transferentzia hartzen duen entitateak ez dauka eragiketarako diru-sarreraren eta gastuen kontrolik
3	Eragiketa gauzatzeko epetik kanpo egindako jarduerengatik gastuak daude
G23	JARDUERAREN EGIKARITZE IRREGULARRA
1	Entrega-epeak justifikaziorik gabe atzeratu dira
2	Ez dago entregatik, edo egindako zerbitzuak ez dauka espero zen kalitatea
3	Azpikontaristek edo bitarteko propioko langileek egin beharreko jarduerak zehaztasunik gabe deskribatu dira
4	Ez dago agiririk sailaren arduradunak mandatuaren edo transferentziaren jarraipena egin duela frogatzeko
G24	AZPIKONTRATAZIOAREN EGIKARITZE IRREGULARRA
1	Mandatu edo transferentzia hartzen duen entitateak ez du bete lehia bermatzeko betebeharra, hala bazegokion hornitzaileekin negoziatzeko edo mandatuak jardura lizitzatzeko, SPKLren eta Europar Batasuneko araudiaren eskakizunen arabera
G25	PUBLIKOTASUNAREN ARLOAN APLIKATZEKO DEN ARAUDIAREN ONDORIOZKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEA
1	Informazio- eta komunikazio-betebeharrak ez dira bete (izan ere, 50.000 eurotik gorako eta BEZik gabeko mandatuak kontratatzailearen profilean argitaratu behar dira, SPKLren 63.6 artikuluan xedatutakoaren arabera), ezta EBren eta planaren logoei dagokiena ere.
G26	ENTITATE ARDURADUNEK EDO FINANTZATUEK EZ BETETZEA EUROPAKO ERKIDEGOKO ARAUDITIK ERATORRITAKO ETA APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA: HAUTAGARRITASUNARI, DOKUMENTUEN KONTSERBAZIOARI, PUBLIKOTASUNARI ETA ABARRI BURUZKOA
1	Organismoak edo azpikontaristak ez du eragiketari buruzko dokumentazio zuzenik egin, auditoria-pista bermatzen duenik.
2	Mandatu edo transferentzian, gastu finantzarrien (hautagarrien) eskakizuna ez da ez argia ez zehatza.
3	Transferentzian, ez dago eragiketarik eratorritako gastuak justifikatzeko moduen gaineko eskakizunik. (Ez da aplikatzen mandatuetan)





IV. Hitzarmenak

G27	KONTRATAZIO-PROZEDURA HITZARMENEN BIDEZ SAIHESTEA
1	Bandera gorria sortu da hitzarmenean BFari esleitutako jarduerak, funtsean, alderdi esku-hartzaileak finantzatzea baino ez direlako
2	Egin beharreko jarduera Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenekoa baino ez da
3	Lortutako emaitzen titulartasuna BFari baino ez zaio esleitu
4	Ez dago alderdi hauek aztertu dituen justifikazio-memoriarik: premia eta egokitasuna, inpaktu ekonomikoa, hizpidetako jarduera kontratuzko ez izatea, eta lege honetan xedatutakoa betetzea
G28	INTERES-GATAZKAK
1	Hitzarmenaren sinatzaileek nolabaiteko lotura dutelako zantzuak daude
2	Behin eta berriz egin dira entitate berekiko hitzarmenak
G29	ALDERDI LAGUNTZAILEAK HAUTATZEKO TRATU DISKRIMINATZAILEA
1	Ez dira bete laguntzaileen hautaketan, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak
2	Ez da egiaztatu interes ekonomiko, sozial edo bestelakorik, hitzarmena hitzartu den entitatearekin sinatzea justifikatzen duenik eta harekiko pribilegio-tratua kentzen duenik
G30	ESTATUAREN LAGUNTZA-ARAU BIDEA EZ BETETZEA
1	Finantzatutako eragiketak estatu-laguntzak dira, eta ez da bete Europako araudiak horretarako ezarritako informazio- eta jakinarazpen-prozedura
G31	LEHIA MUGATZEA, HITZARMENA AZPIKONTRATAZIOAREN BIDEZ GAUZATZEN BADA
1	Ez da bete lehia bermatzeko betebeharra, lankidetzat hitzarmena hirugarrenen egikaritzen dutelako
G32	HITZARMENAK IZENPETZEKO USTELKERIA
1	Haborokin bidegabeak onartu edo eskatu dira, administrazio publikoekiko edo zuzenbide pribatuko subjektuekiko hitzarmenak egiteko
2	Eroskeria-eskaintzak, komisiio-eskaerak edo beste onura ilegítimo batzuk onartu edo eskatu dira, hitzarmenaren betearazpena ondo ez gainbegiratzearen truke
G33	GEHIGARRITASUN-PRINTZIOA EZ BETETZEA
1	Hitzartutako jarduerarako beste finantzaketa bat dago, hitzarmena sinatu duten alderdiek emandakoaz bestelakoa
2	Ez dago hirugarrenen egindako ekarpenen euskarri den dokumentaziorik (hitzarmenak, dohaintzak, bestelako diru-ekarpenak, etab.)
3	Ez dago hirugarrenen emandako finantzaketaren xedeari buruzko euskarri-dokumentaziorik, ez eta finantzaketa banatzeko irizpideei buruzkorik ere
4	Hitzarmenaren jarraipen-batzordeak ez dauka eragiketarako diru-sarreraren eta gastuen kontrolirik (barnean hartuta hitzarmenean parte hartzen duen alderdiren batek superabitik duen ala ez egiaztatzeak akta)





5	Hitzarmenaren jarraipen-batzordeak ez dauka proiektuari esleitutako mugarren edo helburuen kontrolik, aurreikusitako helburuen gainean lortutako emaitzak adierazleen bidez adierazitakorik
G34	ENTITATE LAGUNTZAILEEK EZ BETETZEA EUROPAKO ERKIDEGOKO ARAUDITIK ERATORRITAKO ETA APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA: HAUTAGARRITASUNARI, DOKUMENTUEN KONTSERBAZIOARI, PUBLIKOTASUNARI ETA ABARRI BURUZKOA
1	Hitzarmenean, gastu finantzagarrien (hautagarrien) eskakizuna ez da ez argia ez zehatza.
2	Hitzarmenean, ez dago eragiketatik eratorritako gastuak justifikatzeko moduaren gaineko eskakizunik
3	Hitzarmenak ez du zehatz-mehatz ezarri zer metodo aplikatu behar den kostuak kalkulatzeko
4	Jarraipen-batzordeak ez dauka aktarik dokumentatzeko zer emaitza lortu diren jardueraren helburuei dagokienez eta hautagarritasunaren, dokumentu-kontserbazioaren, publikotasunaren eta abarren arloko betebeharre dagokienez
G35	DOKUMENTU-FALTSUTASUNA
1	Gastuak justifikatzeko dokumentu-euskarria manipulatu da
G36	HITZARMENETAKO USTELKERIA
1	Eroskeria-eskaintzak, komisio-eskaerak edo beste onura ilegítimo batzuk onartu edo eskatu dira, esku-hartzaileek egin behar dituzten jarduerak nola egiten dituzten ondo ez gainbegiratzearen truke





19 VII. eranskina: Prozedura-gida interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizaturako (MINERVA) (eg. urr. 2025)

AURKIBIDEA

1. Zer da interes-gatazkaren (IG) arriskuaren analisi sistematikoa?
2. Zein da helburua?
3. Non arautzen da?
4. Aplikazio-eremua
5. Prozedurak ezartzen dituen figurak
 - A) ERAGIKETAREN ARDURADUNA
 - B) ERABAKITZAILEAK
 - C) ERABAKITZAILEAREN NAGUSI HIERARKIKOA
 - D) BESTE LAGUNTZA-, LANKIDETZA- ETA AHOLKULARITZA-FIGURA BATZUK
6. MINERVAko prozedura
 - 6.1.-Informazioa biltzea eta ZAEAr igortzea
 - 6.2.-Analisiaren emaitzak
 - A) Ez da bandera gorririk detektatu
 - B) Bandera gorri bat edo gehiago detektatu da
 - C) Bandera beltz bat edo gehiago aurkitu da

19.a I. ERANSKINA MINERVAREN ANALISI SISTEMATIKORAKO PROZEDURA-GIDA: Interes-gatazkarik ezaren adierazpenaren gutxieneko edukia. IGEAren eredu: HFP/55/2023 (PREBENTZIO-PLANEAN SARTUTA DAGO IV.c eranskinean)





19.b II. ERANSKINA MINERVAREN ANALISI SISTEMATIKORAKO PROZEDURA-
GIDA: Eredua: interes-gatazkarik ez dagoela berrestekoa (PREBENTZIO-PLANEAN
SARTUTA DAGO IV.d eranskinean)

19.c III. ERANSKINA MINERVAREN ANALISI SISTEMATIKORAKO PROZEDURA-
GIDA: Zer arau aplikatu behar den hautatzeko zer eskabideri egin behar zaion arrisku-
analisia lehia masiboko dirulaguntzak emateko prozeduretan

19.d IV. ERANSKINA MINERVAREN ANALISI SISTEMATIKORAKO PROZEDURA-
GIDA: CoFFEE eta MINERVA erabiltzeko jarraibideak





1. Zer da interes-gatazkaren (IG) arriskuaren analisi sistematikoa?

SEEP egikaritzen duten prozeduretan interes-gatazken arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatua egiteko prozedura hauek arautzen dute: irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan interes-gatazken arriskuen analisiari buruz dagoeneko aurreikusita dauden neurriak, eta 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarria.

Era berean, ehun eta hamabigarren xedapen gehigarri hori aplikatuta, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua onartu da, eta interes-gatazken arriskuaren analisi sistematikoa dela eta, nahitaezotasuna ezartzen dio arriskuaren analisi sistematikoa egiteko prozedura aplikatu beharrari.

2. Zein da helburua?

Prebentzio-neurri gisa jardutea du helburu, eta, horretarako, interes-gatazka potentziala murriztu eta, ondorioz, baita iruzurra ere.

3. Non arautzen da?

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko **2021/241 (EB) Erregelamendua** (22. artikulua), Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena (SEM).
- Abenduaren 23ko **31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarria** (2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea).
- **HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa**, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan interes-gatazken arriskuaren analisi sistematikoa egiteari buruzkoa. **Ez da aplikatuko 6. artikulua, BFAren Iruzuraren Kontrako Neurrien Planaren III. eranskinean ezarritako prozedura aplikatuko baita.**
- **HFP/55/2023 Agindua aplikatzeko gida praktikoa** (HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzen duten prozeduretan interes-gatazka izateko arriskuaren analisi sistemikoari buruzkoa), **aginduaren 6. artikulua izan ezik.**
- **Batzordearen komunikazioa (2021/C 121/01):** Finantza Erregelamenduekin bat etorriz, interes-gatazkako egoerak kudeatzeko edo halakorik ez izateko orientabideak.
- Europar Batasunak kofinantzatutako proiektuetan **osotasuna, kudeaketa-arriskuen prebentzioa eta iruzurraren kontrako neurriak sustatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren plana**, Gobernu Kontseiluak 2022ko maiatzaren 17an onetsia **eta 2024ko abenduaren 2an azkenengoz eguneratua.**





4. Aplikazio-eremua

2023ko urtarrilaren 26tik aurrera (urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua indarrean sartu zenetik) argitaratzen diren deialdietako kontratazio-prozedurei edo dirulaguntzak emateko prozedurei aplikatuko zaie analisi sistematikoa.

- Kontratuak esleitzeko edo dirulaguntzak emateko prozeduretan parte hartzen duten enplegatuei egingo zaie IGaren analisia.
- Zehazki, analisia prozedura guztietan egingo zaie eginkizun hauek betetzen dituzten pertsonen:

1. Kontratuak:

- o Kide bakarreko kontratazio-organoa.
- o Kide anitzeko kontratazio-organoko kideak.
- o Kontratazio-organuari laguntzen dioten eta kontratazio-prozeduretan parte hartzen duten kide anitzeko organoko kideak.

Garrantzitsua: analisia kontratazio-prozedura guztiei aplikatzen zaie, zenbatekoa edozein dela ere.

Organoen tipologia: Hala badagokio, analisi-prozedura aplikatuko zaie eskuordetzaz jarduten duten organoei, edo sail edo foru-entitate bakoitzean horretarako eskumenak esleituta dauzkaten.

2. Dirulaguntzak:

- o Emateko eskumena duen organoa.
- o Eskabideak baloratzeko kide anitzeko organoetako kideak.

Garrantzitsua: Konkurrentzia masiboko dirulaguntzak badira (ehun eskabide baino gehiagokoak), HFP/55/2023 Ministro Aginduaren III. eranskinean ezarritako moduan egingo da analisia.

Organoen tipologia: Dirulaguntzen arloko araudiak motak ezarri ditu organo emaileen eta laguntza- eta balorazio-organoen artean. Hala badagokio, ordezkartaz jarduten duten organoei edo deskontzentratutako eskumenak dauzkaten organoei aplikatuko zaie analisi-prozedura hori.





Entitate betearazle edo instrumentalentzako dirulaguntzak: ez da beharrezkoa izango IGaren kontrol-analisirik egitea dirulaguntzaren hartzailea entitate betearazle bat edo instrumental bat bada.

5. Prozedurak ezartzen dituen figurak

A) ERAGIKETAREN ARDURADUNA

Nor da? Kontratazio-organoaren edo dirulaguntza ematen duen organoaren titularra da, edo, hala badagokio, eskumena eskuordetuta daukan organoaren titularra, edo kontratatze eskumena esleitura daukana, edo dirulaguntza emateko eskumena eskuordetuta edo deskontzentratuta daukana.

Nola izendatzen da? Eragiketaren arduraduna CoFFEEren arduradunak izendatu behar du, eta, azpiproiektu bakoitzerako, eragiketaren arduradunaren izena sartuko du CoFFEE plataforman. Izendapen hori CoFFEEren bidez baliozkotuko da.

Zer eginkizun betetzen ditu?

- Eragiketarako erreferentzia-kodea (CRO) lortzea, CoFFEE aplikazioak sortuta.
- MINERVAn datuak sartu eta erregistratzea.
- Eskatutako informazioa CoFFEEren sartzea.
- Eraginpeko erabakitzaileari eta, hala badagokio, nagusi hierarkikoari, analisiaren emaitzak jakinaraztea eta neurri egokiak hartzea.

B) ERABAKITZAILEAK

Nor dira? Eginkizun hauek (edo parekoak) betetzen dituzten pertsonak dira:

1. Kontratuen arloan: kide bakarreko kontratazio-organoa eta kide anitzeko kontratazio-organoko kideak, eta eskaintzak baloratzeko, esleipen-proposamena egiteko eta kontratua esleitzeko kontratazio-prozeduretako faseetan parte hartzen duten kontratazio-organoari laguntzen dioten kide anitzeko organoko kideak (pertsona horien artean hauek daude: eskaintzak ebaluatzen dituzten adituak, kanpokoak zein barnekoak izan, eta eskaintzei buruzko txostenak egiten dituzten teknikariak).

2. Dirulaguntzen arloan: dirulaguntzak emateko organo eskuduna eta eskaerak baloratzeko kide anitzeko organoetako kideak (pertsona horien artean daude eskabideak ebaluatzen dituzten kanpoko zein barneko adituak).





Zer eginkizun betetzen dituzte?

- Interes-gatazkarik ezaren adierazpenak (IGEAK) elektronikoki sinatzea, eskaintzak edo eskabideak baloratu aurretik eta kontratazio-prozeduretako edo dirulaguntzak emateko prozeduretako parte-hartzaileak nork diren jakiten den unean.
- Eskatutako neurriak hartzea, arriskuen analisia egin ondoren lortutako emaitzen arabera.

C) ERABAKITZAILEAREN NAGUSI HIERARKIKOA

Nor da? Erabakitzailea dagoen organoaren edo unitatearen titularra dena eta haren jarduna zuzendu eta koordinatzeko ahalmena duena.

Zer eginkizun betetzen ditu?

- Iruzuraren kontrako batzordeari eskatzea, eragiketaren arduradunaren bitartez, eraginpeko erabakitzaileari buruzko txostena egin dezala.
- Eraginpeko erabakitzaileak prozeduran parte har dezala onartzea ebatzea, arrazoiak emanda, edo erabakitzaileari abstentzioa agintzea.

D) BESTE LAGUNTZA-, LANKIDETZA- ETA AHOLKULARITZA-FIGURA BATZUK

- **Proiektuaren eta azpiproiektuaren organo kudeatzailea:** eragiketaren arduraduna identifikatzen du CoFFEEen; eragiketarako erreferentzia-kodea (CRO) sortzen laguntzen du, eta, hala badagokio, IGaren analisiaren emaitzak jasotzen ditu.
- **Iruzuraren kontrako batzordeak:** eragiketaren arduradunak eskatuta, txostena ematen dute bandera gorri bat edo gehiago detektatuz gero.
- **EAKN/IGAEko unitate espezializatua:** txostenak egiten ditu iruzurraren kontrako batzordeek hala eskatzen diotenean, eta jardunbide egokiak eta materialak zabaltzen ditu IGaren egoerak identifikatzeko eta horiei aurre egiteko

6. MINERVAKO prozedura

6.1.-Informazioa biltzea eta ZAEAra igortzea

Prozedura bakoitzeko eskaintzak edo eskaerak baloratu aurretik, eragiketaren arduradunak informazio hau bildu eta txertatuko du ZAEAREN MINERVA tresnan:

1. COFFEEen aurretik sortutako eragiketarako erreferentzia-kodea (CRO).





2. Eragiketako erabakitzaileen izen-abizenen eta IFZen zerrenda.
3. Prozeduran parte hartzen duten pertsona fisikoen izen-abizenen edo IFZen zerrenda.
4. Pertsona juridikoak badira, bakoitzaren sozietate-izena eta IFZa adieraziko dira.

Parte-hartzaileak Espainiako IFZrik ez badauka, MINERVAk ez di informaziorik izango analisia egiteko eta, ondorioz, kasuistika horretarako, bandera beltz bati lotutako eragiketa gauzatuko da.

Erabilera-eskuliburua: IV. eranskinean erantsia (CoFFEE eta MINERVA erabiltzeko jarraibideak).

Ohartarazpena: CoFFEE tresnak ez du eragiketarako erreferentzia-koderik (CRO) sortzen utziko, lehenago jarduketarik sortu ez bada kode hori integratu behar duen azpiproiekturako, hau da, zehazki, kontratatzeko edo dirulaguntzak emateko prozedura sortu behar da. **Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren** arabera (FEMP): «Azpiproiektuak balidatu ondoren, CoFFEEen proiektuei dagokien informazioa sartutakoan, CRO kodea lortuko dute. Nahiz eta, informazio hori erregistratu ondoren, jarduketak "zirriborro" gisa agertu eta "berrikusia"ren egoerara ez aldatu, CRO kodea izango dute».

IGEA: Gainera, eragiketaren arduradunak CoFFEEen kargatuko ditu erabakitzaileen IGEAk.

Datuen babesa: Prozedura horretatik eratorritako datuen tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion legezko betebeharrerako.

6.2.-Analisiaren emaitzak

MINERVAk, datuak gurutzatu eta hurrengo egunean, eragiketaren arduradunari eskainiko dio IGaren arrisku-analisiaren emaitza. Hauek dira analisiaren hiru emaitza posibleen esanahia eta ondorioak:

A) Ez da bandera gorririk detektatu

Ez da topatu inguruabarrik IGaren arriskua dagoela adierazten duenik. Prozedurak aurrera egin dezake.





B) Bandera gorri bat edo gehiago detektatu da

IGaren arriskua dagoela adierazten duten inguruabarrak topatu dira. MINERVaren emaitzetan hauek agertuko dira: eraginpeko erabakitzailearen IFZ eta IGaren gatazka-arriskuko bikotekidearen IFZ (lizitatzaila edo eskatzailea).

BFaren Iruzuraren Kontrako Neurrien Planaren III. eranskinean ezarritako prozedura aplikatuko da (BFaren ebazpen baten bidez **aldatu zen azkenengoz 2024an**), eta haren arabera:

- MINERVA bidez bandera gorria jasotzeko eguna:
 - o MINERVak Glaren arriskua dagoela jakinarazteko bidaltzen duen komunikazioa jasotzen duen eragiketaren arduradunak eten egin beharko du kontratatze edo dirulaguntzak emateko prozedura, eta elektronikoki sinatutako eginbide baten bidez utziko du etenduraren froga.
 - Kontratua bada, eragiketaren arduradunak arriskuaren eta etenduraren berri emango dio Kontratazio Zerbituari.
 - o Eragiketaren arduradunak eraginpeko erabakitzaileari eta nagusi hierarkikoari jakinaraziko die IGaren arriskua dagoela, eta jakinarazpen horren froga utziko du.
- **Eraginpeko erabiltzaileak**, bandera gorriaren komunikazioa jaso eta, gehienez, bi egun balioduneko epean, **aukera hauek ditu**:
 - o Prozeduran jarraitetik abstenitzea, edo
 - o IGrik ez duela azaltzeko alegazioak idatziz egitea.
- Gehienez ere bi egun balioduneko epean, aurreko alegazio-epea amaitzen denetik aurrera, eraginpeko pertsonaren nagusi hierarkikoak hau egingo du, kontuan hartuta, besteak beste, alegazioak eta MINERVak detektatu diren arriskuen deskribapenari buruz jaso duen informazio gehigarria:
 - o **Glaren frogabide argia badago**, eraginpeko erabakitzaileari aginduko dio prozeduratik abstenitzeko, eta beste arrisku-analisi bat egingo zaio ordezkari.
 - o Frogabide argirik ez badago, egoeraren berri emango zaio Arriskua Prebenitzeko Batzordeari (aurrerantzean, APB), fondosnext@bizkaia.eus postontziaren bidez, azter dezan eta ondorioen txostena eman diezaion, gehienez ere bi egun





balioduneko epean. Salbuespenez, epe hori beste bi egun baliodun luzatuko da, baldin eta Arriskua Prebenitzeko Batzordeak uste badu txostena eskatu behar diola EAKN/IGA Eren aholkularitzan espezializatutako unitateari.

- APBren txostena jaso eta bi egun balioduneko epean gehienez, nagusi hierarkikoak hau egin beharko du:
 - o Glaren frogabide argia badago, eraginpeko erabakitzaileari aginduko dio prozeduratik abstenitzeko, eta beste arrisku-analisi bat egingo zaio ordeztzeko.
 - o IGaren arriskurik ez dagoelako frogabide argia badago, eraginpeko erabakitzaileari berrespenerako IGEA eskatuko dio –osotasun-plan honen IV.d eranskina–, eta prozeduran jarraituko du.
 - o Ez bada lortu frogabide argirik, ez IGrik ezerako, ez IGA baieztatzeko, eraginpeko erabakitzaileari aginduko dio prozeduratik abstenitzeko, eta beste arrisku-analisi bat egingo zaio ordeztzeko.

Gogorazpena: Eragiketaren arduradunak, auditoriarik egin ahal izateko, egindako jarduketa guztiak kargatuko ditu CoFFEEen, eta proiektuak eta azpiproiektuak kudeatzen dituzten organoek eskuragarri izango dituzte bertan.

Ondoren, fluxu-diagrama baten bidez, eskematikoki dago adierazita zer prozedura bete behar den bandera gorri bat detektatzen denean:





C) bandera beltz bat edo gehiago aurkitu da

MINERVaren bidez egindako analisia kontuan hartuta, ez da aurkitu nor den pertsona juridiko eskatzailearen benetako titularra, eta horrek IGaren analisia eragozten du. Kasu hori aldi berean gerta daiteke aurreko bi emaitzetako edozeinetan.

Hauek dira egoera horren ondorioak:

- Egoera horretan ez da automatikoki etengo hasitako prozedura, aurrera egingo baitu.
- Edonola ere, eta, aldi berean, kontratazio-organoei eta dirulaguntzak ematen dituzten organoei ahalmena eman zaie prozeduretako parte-hartzaileei titulartasun errearen gaineko informazioa eskatzeko. Informazio hori bost egun balioduneko epean eman beharko da, eta, entregatu ezean, prozeduratik kanpo geratuko da.

Horretarako, beharrezkoa izango da aurretik deskribatutako guztia kontratazio-pleguetan eta dirulaguntza arautzen duen araudian ezartzea, edo, bestela, beste bideren baten bidez eskuratzeko eskatzea.

Halaxe kontrolatu ahalko da zerbitzu juridikoen eta kontu-hartzailetzaren aurretiazko txosten-izapideetan.

Titular errearen datuak jaso ondoren, eragiketaren arduradunak MINERVaren bidez IGaren arriskuaren beste kontrol bat egingo du, *ex-ante*, eta adieraziko du, lizitatzailaren edo eskatzailearen orde, zein diren kontratazio-organoek edo dirulaguntza ematen duten organoek berreskuratu dituzten titular errealak.





19.a I. ERANSKINA MINERVAREN ANALISI SISTEMATIKORAKO PROZEDURA-GIDA: **Interes-gatazkarik ezaren adierazpenaren gutxieneko edukia**. IGEAren eredua: HFP/55/2023 (PREBENTZIO-PLANEAN SARTUTA DAGO IV.c eranskinean)

19.b II. ERANSKINA MINERVAREN ANALISI SISTEMATIKORAKO PROZEDURA-GIDA: Eredua: interes-gatazkarik ez dagoela berrestekoa (PREBENTZIO-PLANEAN SARTUTA DAGO IV.d eranskinean)

19.c III. ERANSKINA MINERVAREN ANALISI SISTEMATIKORAKO PROZEDURA-GIDA: Zer arau aplikatu behar den hautatzeko zer eskabideri egin behar zaion arrisku-analisia lehia masiboko dirulaguntzak emateko prozeduretan

Lehia masiboko dirulaguntzak badira (ehun eskabide baino gehiagokoak), interes-gatazkaren arriskuaren analisiaren abiapuntua izango da oinarri arautzaile edo dirulaguntza-deialdi zehatzetan xedatutakoa, eta honela egingo da:

A) Ez dago aukerarik azkenean emandako dirulaguntza bakar bat ere 10.000 eurotik gorakoa izateko. Hala bada, eragiketaren organo arduradunak aukeran dauka, batetik, eskatzaile guztiei interes-gatazkaren arriskuaren analisia aplikatzea, edo, bestetik, ehun eskabide hautatzea, egiaztatzeko. Eta honela jotzeko da:

Eskabide guztiak sarrera-egunaren eta -orduaren arabera ordenatuko dira.

1. Eskabide-kopuru osoa 100ez zatituko da. Horrela lortuko da egiaztatu beharreko eskabi-deak hautatzeko tarte-maila. Horretaz gain, zenbaki hamartarra izanez gero, zati dezimala zenbaki oso txikienera biribilduko da.





2. Lehenengo eskabidea hautatuko da, eta, ondoren, lortutako tarte-maila ondoz ondo batzearen ondoriozko ordena betetzen dutenak, ehun eskabide izan arte. Eragiketaren arduradunak hautatutako eskatzaileen auditoria-pistei heldu beharko die egiaztapena egiteko, eta behar bezala dokumentatu beharko du hautaketa-prozesu hori.

Esate baterako, sistema errazago aplikatzeko, adibide bat proposatu da. Adibide horretako hasierako egoeran, 3.532 eskabide aurkeztu dira, zati 100 berdin 35,32. Zenbaki osoa ez denez, kasu honetan, beheko zenbaki osora biribilduta, 35. Hala, eskabide hauek hautatu beharko dira: 1. eskabidea, 36. eskabidea, 71. eskabidea, 106. eskabidea, eta, horrela, hurrenez hurren, 100 eskabide izan arte.

B) Baliteke azkenean deialdi jakinen batean emandako dirulaguntzaren bat 10.000 eurotik gorakoa izatea. Hala bada, eskabideen % 100 aztertuko dira, kontuan hartu gabe eskaera bakoitzari azkenean zenbat eman zaion.

19.d IV. ERANSKINA MINERVAREN ANALISI SISTEMATIKORAKO PROZEDURA-GIDA: CoFFEE eta MINERVA erabiltzeko jarraibideak

1. Sarrera

Agiri honetan dago azalduta nola erabiltzen diren CoFFEE eta MINERVA sistemak, kontratuak esleitzeko eta dirulaguntza emateko prozeduretako interes-gatazkaren analisiaren esparruan, eta kontuan hartuta bete behar direla urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Ministerio Aginduak interes-gatazken gainean ezarritako betebeharrak (agindu hori Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduretako interes-gatazken arriskuaren analisi sistematikoari buruzkoa da).

Ondoren, eragiketak lizitzatzeko edo izapidetzeko, bi aplikazioak erabiltzen dituen prozeduraren urrats nagusien zerrenda dago:

1. CoFFEEen eragiketarako erreferentzia-kodea (CRO) lortzea eta eragiketaren arduraduna identifikatzea, 4. artikulua 2. eta 3. apartatuetan ezarritakoaren arabera
2. Informazioa ZAEAr igortzea (MINERVA tresnaren bidez)
3. MINERVaren emaitza. Interes-gatazkaren laburpen-dokumentua lortzea
4. CoFFEEen dokumentazioa erregistratzea eta kontsultatzea





Ondorengo apartatuetan, bete beharreko prozesu operatiboa dago zehaztuta, CoFFEEren pantaila-irudiak barne.

2. CoFFEEen eragiketarako erreferentzia-kodea (CRO) lortzea eta eragiketaren arduraduna identifikatzea

Hasitako prozedura bateko CRO lortzeko, **beharrezkoa da COFFEEen jarduketa sortuta egotea**. Izan ere, jarduketa hori da eragiketaren ardatza, bakoitzari dagokion proiektuaren / azpiproiektuaren / azpiproiektu instrumentalaren eremuan (aurreratzean, *nodo* hitza erabiliko da edozein proiekturi, azpiproiekturi edo azpiproiektu instrumentali buruz hitz egiteko).


CoFFEE eta MINERVA sistemetan, CRO da eragiketa-kodearen erreferentzia.

Garrantzizua. Nodo batean jarduketa bat sortu ahal izateko, beharrezkoa da nodoa berrikusita egotea.

2.1. Eragiketarako erreferentzia-kodea (CRO) lortzea

Lehenik eta behin, tresna juridiko bati (kontratuari edo dirulaguntzari) eman beharko zaio alta, bakoitzari bere jarduketan. CoFFEEek, automatikoki, eragiketa-kode bakarra esleituko dio tresna juridiko horri. Horretarako, egiaztapenaren laukiak markatuta egon behar du: baldin eta «Interes-gatazka egiaztatu behar da».

